

ANTOLAKUNTZA ETA JARDUERA ARAUDIA
MUKUSULUBA HLHI

MUKUSULUBA LHI

ANTOLAKUNTZA
ETA
JARDUERA
ARAUDIA

2009ko abenduan

ATARIKO TITULUA:

1. artikulua: MUKUSULUBA HLHIren izendapena, irakaskuntzak eta ezaugarriak.

I. TITULUA:

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

2. artikulua. Aginte-organoak.

3. artikulua. Hezkuntza-komunitatearen partaidetza.

4. artikulua. Koordinazio didaktikorako organoak

5. artikulua. Aginte-organoen, partaidetza-organoen eta koordinazio didaktikorako organoen jardunaren oinarriak.

II. KAPITULUA. TALDEKO AGINTE-ORGANOAK

I. ATALA. MUKUSULUBA HLHIko OOG

6. artikulua. MUKUSULUBA HLHIko OOGren ezaugarriak eta osaera

7. artikulua.- OOG hautestea eta berritzea

8. artikulua. Presidente eta idazkaria aldatzea

9. artikulua. OOGren funtzionamendu-erregimena

10. artikulua. OOGko batzordeak

II. ATALA. IRAKASLEEN KLAUSTROA

11. artikulua. Irakasleen klaustroaren ezaugarriak eta osaera

12. artikulua. Klaustroaren funtzionamendu-erregimena

13. artikulua. Klaustroaren eskumenak

III. ATALA. ZUZENDARITZA TALDEA

14. artikulua. Zuzendaritza taldea

III. KAPITULUA. PERTSONA BAKARREKO AGINTE-ORGANOAK

15. artikulua. Zuzendaria

16. artikulua. Ikasketa-Burua

17. artikulua. Idazkaria

18. artikulua. Pertsona bakarreko aginte-organoak izendatzea eta kargua uztea

19. artikulua. Zuzendaritza taldeko kideak ordezkatzeari

IV. KAPITULUA. IRAKASKUNTZA KOORDINATZEKO ORGANAK

20. artikulua MUKUSULUBA HLHIko koordinazio-organoak.

I. ATALA. PEDAGOGI-BATZORDEA

21. artikulua. Pedagogi-batzordearen ezaugarriak eta osaera

22. artikulua. Pedagogi batzordearen eskumenak.

II. ATALA. TUTOREAK ETA IKASLE TALDEEN IRAKASLEAK

23. artikulua. Tutoretza eta tutoreak izendatzea

24. artikulua. Tutoreen funtzioak

25. artikulua. Ikastaldeko irakastaldearen osaera eta ezaugarriak.

26. artikulua. Ikastaldeko irakasleen taldearen funtzioak:

27. artikulua. Zikloko irakasleen taldea

28. artikulua. Zikloko irakasleen taldearen funtzioak

29. artikulua. Irakasleen huts egiteaz eta ordezkapenaz

30. artikulua. A21 eta normalkuntza batzordea

31. artikulua. Kalitate batzordea

V. KAPITULUA. PARTAIDETZA-ORGANO BEREZIAK

I. ATALA. GURASOEN BATZARRA, IKASLEEN GURASO-ELKARTEAK

32. artikulua. Gurasoen Batzarra

33. artikulua. Irakasleen guraso-elkarteak

34. artikulua. Elkarte legalki eratuen bidez parte hartzea

35. artikulua. *Ikasleen guraso eta tutoreen eskubide eta betebeharrak.*

36. artikulua. *Autonomia pedagogikoaz*

VI.- KAPITULUA ERREKURTSOEN KUDEAKETA:

I ATALA. ZENBAIT ZEHAZTASUN

37. artikulua. *Kudeaketa proiektua*

VII. KAPITULUA.- TESTULIBURUEN ERABILPEN SOLIDARIOA IZENEKO PROGRAMAZ.

38. artikulua. *Programaren kudeaketaz*

39 artikulua. *Erabilpen eta kontserbazioa*

40.artikulua. *Zigorak*

41. artikulua. *Uko egitearen aukeraz.*

VIII. KAPITULUA.- HEZKUNTZA KOMUNITATEAZ

I. ATALA: IKASLEAK

42. artikulua. *Absentismoaren kontrola*

43. artikulua. *Istripuak eta gaixotasunen kudeaketa*

44. artikulua. *Sarrera eta irteerak*

II ATALA: PERTSONAL EZ-IRAKASLEA

II.-1- ATEZAINAK

II-2- GARBITZAILEAK

II.-3- SUKALDARIA

II.-4.- JANTOKIKO BEGIRALEAK

IX. KAPITULUA.- INSTALAZIOAK

1.- JANTOKIA:

1.1.-*Helburuak*

1.2.- *Arau orokorrak*

1.3.- *Irakasleei dagokiena*

1.4.- *Ikasleei dagokiena*

1.5.- *Familiei dagokiena*

2. – LIBURUTEGIA:

2.1- *Arau orokorrak*

3.- INFORMATIKA GELA

3.1.- *arau orokorrak*

X. KAPITULUA.- EBALUAZIOAZ:

45. artikulua. *Printzipio orokorrak*

46. artikulua. *Ebaluazioaz*

47. artikulua. *Haur Hezkuntzako Ebaluazioaz.*

48. artikulua. *LHko ebaluazioaz.*

49. artikulua. *Ebaluazio sesioak.*

50. artikulua. *Ebaluazioaren emaitzez*

51. artikulua. *Ikasleen promozioaz*

52. artikulua. *Hezkuntza behar bereziko ikasleen ebaluazioaz*

53. artikulua. *Curriculumaren egokitzapenez*

54. artikulua. *Ikasle eta beren familiei informazioez*

55. artikulua. *Ikaslearen lanak, frogak eta ariketen berrikusketaren aukeraz.*

56. artikulua. *Zenbait ariketa eta azterketa jakin batzuen gaineko erreklamazioaz*

57. artikulua. *Ebaluazioaren emaitzen erreklamazioaz.*

58. artikulua. *Kalifikazioa justifikatzen duten dokumentuen kontserbazioaz*

59. artikulua. *Ziklo amaierako kalifikazioen erreklamazio aukeraz*

II. TITULUA:

XI. KAPITULUA.- IKASLEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

IKASLEEN ESKUBIDEAK

- 60. artikulua. Hezkuntza integrala izateko eskubidea.*
- 61. artikulua. Ikasle adingabeen eskubidea arreta berehala jasotzeko.*
- 62. artikulua. Ikastetxeak babesteko ikasle adingabeek duten eskubidea.*
- 63. artikulua. Errendimendu akademikoaren balioespen objektiboa izateko eskubidea*
- 64. artikulua. Eskola- eta lanbide-orientaziorako eskubidea.*
- 65. artikulua. Osotasun, nortasun eta duintasun pertsonaleko eskubidea.*
- 66. artikulua. Kontzientzia-askatasunerako eskubidea.*
- 67. artikulua.- Ikastetxeetan biltzeko eskubidea.*
- 68. artikulua.- Adierazpen-askatasunerako eskubidea ikastetxeetan.*
- 69. artikulua.- Ikasleek elkartzeko duten eskubidea.*
- 70. artikulua. Parte hartzeko eskubidea.*
- 71. artikulua. Informazioa erabiltzeko eskubidea.*
- 72. artikulua. Aukera-berdintasunerako eskubidea.*
- 73. artikulua. Gizarte-babeserako eskubidea.*
- 74. artikulua. Ikastetxean ikasleen eskubideak errespetatzen direla bermatzea.*

IKASLEEN BETEBEHARRAK

- 75. artikulua. Ikasteko betebeharra.*
- 76. artikulua. Prestakuntza-jardueretan parte hartzeko betebeharra.*
- 77. artikulua. Bertaratzeko betebeharra.*
- 78. artikulua. Bizikidetzaz errazteko betebeharra.*
- 79. artikulua. Norberaren kontzientzia-askatasuna errespetatzeko betebeharra.*
- 80. artikulua. Eskolako arauak errespetatzeko betebeharra.*
- 81. artikulua. Instalazioak errespetatzeko betebeharra.*

XII. KAPITULUA:

DESEGOKIAK ETA AURKAKOAK DIREN NAHIZ BIZIKIDETZAN KALTE LARRIAK ERAGITEN DITUZTEN JOKABIDEAK ETA HORIEN ZUZENKETA

- 82. artikulua. Zuzendu behar diren jokabideak.*

JOKABIDE MOTA DESBERDINAK

- 83. artikulua. Jokabide desegokiak.*
- 84. artikulua. Ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabideak.*
- 85. artikulua. Ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak.*
- 86. artikulua. Ikastetxetik kanpo egindako jokabide edo egintzengatiko erantzukizuna.*

XIII KAPITULUA:

HEZKUNTZAKO NEURRI ZUZENTZAILEAK ETA DESEGOKIAK, AURKAKOAK EDOTA BIZIKIDETZARENTZAT LARRIKI KALTEGARRIAK DIREN JOKABIDEEN BESTE ONDORIO BATZUK

- 87. artikulua. Jokabide desegokiaren zuzenketa.*
- 88. artikulua. Ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabideen zuzenketa.*
- 89. artikulua. Ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideen zuzenketa.*
- 90. artikulua. Ikastetxetik aldatzeko proposamena.*
- 91. artikulua. Etengabeko ebaluazioa egiteko ezintasuna bertaratze-hutsegiteak behin eta berriz egiteagatik.*
- 92. artikulua. Oinarrizko gaitasun sozial hiritarra ebaluatzearen ondorioak.*
- 93. artikulua. Izan daitezkeen kalteengatiko erantzukizuna.*

94. artikulua. *Neurri zuzentzaileak proportzionaltasunez aplikatzen direla bermatzeko irizpideak.*

XIV: KAPITULUA:

JOKABIDEAK ZUZENTZEKO BIDE ALTERNATIBOAK

95. artikulua. *Xedapen orokorrak.*

96. artikulua. *Prozedurarik gabeko neurri hezitzaileak.*

97. artikulua. *Prozedura bertan behera uztea adiskidetzea gertatu delako.*

98. artikulua. *Prozedura bertan behera uztea kaltea konpondu delako.*

99. artikulua. *Prozedura bertan behera uztea jokabidea familia-eremuan zuzentzeagatik.*

100. artikulua. *Neurri zuzentzaileak eten, arindu edo barkatzea.*

101. artikulua. *Bizikidetzarako konpromiso hezigarriak.*

XV KAPITULUA:

NEURRI ZUZENTZAILEAK APLIKATZEKO PROZEDURAK

XEDAPEN OROKORRAK

I ATALA:

102. artikulua. *Kontrakoak diren eta bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabidea zuzentzeko erabili behar diren prozedurak*

103. artikulua. *Neurri zuzentzaileak aplikatzeko organo eskumenduna.*

104. artikulua. *Neurri zuzentzaileak aplikatzeko prozeduren epeak.*

105. artikulua. *Denbora igarotzeagatik prozedurei ekiteko debekua.*

106. artikulua. *Neurri zuzentzaileak aplikatzeko unea.*

107. artikulua. *Ikastetxearen barruan jakinarazpenak nahiz erreklamazioak egiteko modua eta epea.*

108. artikulua. *Dekretu honetan arautu diren prozeduretako datu pertsonalak lantzeko, babesteko eta ezeztatzeko bidea.*

109. artikulua. *Erreklamazioak eta helegiteak.*

II. ATALA

JOKABIDE DESEGOKIEN ZUZENKETA

110. artikulua. – *Jokabide desegokiak zuzentzeko ahozko prozedura.*

III. ATALA

BIZIKIDETZAREN AURKAKO JOKABIDEAK ETA BIZIKIDETZAN KALTE LARRIAK ERAGITEN DITUZTEN JOKABIDEAK ZUZENTZEKO OHIKO PROZEDURA

111. artikulua. *Ohiko prozeduraren erabilera.*

112. artikulua. *Hasierako egintzaren gutxieneko edukia.*

113. artikulua. *Hasierako jakinarazpena eta alde zuzentzeko entzunaldirako zitazioa.*

114. artikulua. *Behin-behineko neurriak.*

115. artikulua. *Entzunaldiaren izapidea.*

116. artikulua. *Aplikatu beharreko neurri zuzentzailea erabakitzea.*

117. artikulua. *Dagokion Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzari, eta, hala badagokio, dagokion Gizarte Zerbitzuei jakinaraztea.*

118. artikulua. *Ordezkaritza Organo Gorenaren aurrean erreklamazioa jartzea.*

119. artikulua. *Ordezkaritza Organo Gorenaren erabakia.*

120. artikulua. *Jakinarazpena.*

ATARIKO TITULUA

1. Artikulua

1.1.- MUKUSULUBA HLHI Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoa da. Eskola laikoa eta inklusiboa izan nahi dugu, baloretan hezten duena, giro atseginean, honelako pertsonak garatzeko: osoak, erantzuleak, auto-estimua orekatua dutenak bai arlo akademikoan bai sozialean.

1.2. Dokumentu honen oinarria Euskal Eskola Publikoaren Legea eta Ikasleen Eskubide eta Betebeharren Dekretua izango dira.

1.3. Gure eskolak balore hauetan hezi nahi du: tolerantzia, begirunea, enpatia, elkartasuna, parte-hartze soziala, konpromisoa, alaitasuna, integrazioa, irekiak izatea, berdintasuna, aniztasuna, hobekuntza pertsonala, konstantzia, autonomia, laikotasuna eta kritika.

1.4. Gure eskolak ondoko ildo estrategikoak landuko ditu:

1.- Espazio eta denboraren antolaketa hobetu, irakasleen arteko koordinazioa erraztu eta eraginkorrago egiteko.

2.- Metodologia adostu gure hezkuntza-komunitatean, ikasleen ahaleginak eta erantzukizuna baloratzen duena, ikasleengan ikasteko interesa bultzatzen duena, eta giza baloreetan hazten duena.

3.- Elkarbizitza oinarritzea errespetuan, berdintasunean, tolerantzian, elkartasunean eta gatazken konponbide positiboan.

4.- Helburu komunak lortu aniztasun ideologiko, kultural eta ikasleen behar zehatzetatik abiatuta. Bakoitzarengan gaitasunak garatu, desberdintasunak heziketa osorako aukeratzat hartuta.

5.- Ikasle gehienek jatorrizko hizkuntza gaztelera dela kontuan izanda, euskararen erabilera indartu, gaztelaren kalitatea ahaztu gabe, eta ingelesaren ikasketarako oinarriak ezarri, eta beste hizkuntzekiko gustua eta errespetua ezarri.

6.- Familiekin eta gizarte-agenteeekin elkarlanean eta koordinazioan aritu, familien lana eta bizitza uztartzen laguntzeko eskola-zerbitzuen bitartez; eskola erakargarria, inguruan integrazio maila altua duena izateko.

7.- Teknologia berriak aplikatu ikastetxearen metodologian, eta eskola berritzailea izan arlo honetan.

AJA honek, honako giza-talde hauek behartzen ditu:

- a) MUKUSULUBA HLHIko irakasleak
- b) MUKUSULUBA HLHIko ikasle, guraso edota legezko tutoreak, eskolan matrikulatzen diren unetik, baja izan arte.
- c) Langile ez irakasleak (atezainak, jantokiko begiraleak, eskolaz kanpoko jardueren arduradunak...)

Eta honako leku jakin hauetan:

- a) Eskola barruan, goizeko 9etatik arratsaldeko 16:30ak arte
- b) OOG-k onarturiko irteera eta barnetegietan (eskolako irakasleek antolaturik)
- c) OOG-k onarturiko eskolaz kanpoko jarduera guztietan.

Dokumentu honek bi euskarri izango ditu erreferente gisa: Euskal Eskola publikoaren legea, eta EAEko ikastetxe ez unibertsitarioetako ikasleen eskubide eta betebeharren dekretua. 2008ko abenduaren 16ko EHAAAn argitaratu zena.

I. TITULUA:

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

2. artikulua.- Aginte-organoez

MUKUSULUBA HLHI-k, legez ezarrita dauden aginte organo hauek ditu:

- a) Taldekoak: OOG, Irakasleen klaustroa eta Zuzendaritzako taldea.
- b) Lagun bakarrekoak: Zuzendaria, Ikasketa-Burua eta Idazkaria.

3. artikulua.- Hezkuntza-komunitatearen partaidetzaz

OOGren bidez, ikasleen gurasoek, irakasleek, administrazioko langileek, zerbitzuetako langileek eta udalak MUKUSULUBA HLHIren kudeaketan parte har dezakete.

Bada MUKUSULUBA HLHIaren jardunean parte hartuko duten beste organo espezifiko bat: ikasleen gurasoen batzarra, hain zuzen.

MUKUSULUBA HLHI ikastetxeko guraso-elkarteak egoitza bertan izango du. Gaur egun, antzinako zuzendaritza, hain zuzen. Horrez gain, elkarteak ikastetxearen bizitzan parte hartzea sustatuko du ikastetxeak. hezkuntza-jarduerak, jarduera kulturalak eta kirol-jarduerak bultzatzeko erraztasunak emanez.

4. Artikulua.- Koordinazio didaktikorako organoez

Tutoretzak eta taldeko, mailako, etapako nahiz zikloko irakasle-taldeak MUKUSULUBA HLHIko koordinazio didaktikorako organoak izango dira. Aipatu berri ditugun organo horiek, klaustroaren eta Koordinazio Pedagogikorako Batzordearen zuzendaritzapean egongo dira.

5. Artikulua. Aginte-organoen, partaidetza-organoen eta koordinazio didaktikorako organoen jardunaren oinarriez

Ikastetxeko aginte-organoez, partaidetza-organoez eta koordinazio didaktikorako organoez zainduko dituzte ikastetxeko jarduerak Euskal Eskola Publikoaren Legean jasotzen diren printzipio eta balioei jarraiki gauzatzen direla. Aipatu berri ditugun organoez, halaber, EEPLn nahiz indarrean dauden xedapenetan ezarri diren hezkuntzako xedeak egoki betetzen direla zainduko dute, baita hezkuntzaren kalitatea ere.

Horrez gain, aginte-organismoek, partaidetza-organismoek eta koordinazio didaktikorako organismoek bermatuko dute, bakoitza bere eskumen-esparruan, ikasleen, irakasleen, gurasoen eta administraziooko nahiz zerbitzueta langileen eskubideak betetzen direla. Era berean, organo horiek guztiek aipatu berri ditugun eragileek beren betebeharrak betetzen dituzten ikuskatuko dute.

Mintzagai ditugun organismoek, bestetik, beren gain hartuko dute hezkuntza-komunitateko kide guztiek ikastetxeko bizitzan, ikastetxearen kudeaketan eta ikastetxearen ebaluaketan eraginkortasunez parte hartuko dutela bermatzeko ardura.

II. KAPITULUA. TALDEKO AGINTE-ORGANOAK

I. ATALA. MUKUSULUBA HLHIko OOG

6. artikulua.- MUKUSULUBA HLHIko OOGren ezaugarriez eta osaeraz

MUKUSULUBA HLHIko OOGren bidez, hezkuntza-komunitateko irakasle, guraso, udalaren ordezkariak eta pertsonal ez-irakasleak hartuko dute parte ikastetxearen kudeaketan.

OOGren eskumenak: (EEPL, 31. 2.atala):

- Ikastetxearen hezkuntza-proiektua, antolakuntza, AJA eta kudeaketa-proiektua onartzea, bete daitezten begiratzea eta ebaluazioa egitea.
- Ikastetxearen urteko plana onartzea.
- Prestakuntza-jardueren, eskolaz kanpokoan eta osagarrien egitaraua eta urteko kudeaketa-egitaraua onartzea, horien jarraipena eta aldizkako ebaluazioa bere gain hartuz.
- Ikastetxearen memoriak onartzea.
- Zuzendaria hautatzea eta, beronen proposamenez, ikastetxeko gainerako bakar-organismoak izendatzea. Zuzendariaren izendapena ezeztatzea edo bera indargabetzeko proposatzea, bi herenek onartutako erabakiz.
- Ikasleen onarpena erabakitzea, indarrean dagoen araubidea aplikatuz.
- Beste ikastetxe batzuekin lankidetzaharremanak izatea kultura eta hezkuntzazko helburuez.
- Eskolako instalazio eta tresneriaren alda-berrikuntza sustatzea, bai eta haien iraupena zaintzea ere.
- Ikastetxearen jarduera orokorra gainbegiratzea, administrazio eta irakaskuntza alderdietan.
- Lege honek edo beste arau batzuek, edo ikastetxearen antolakuntza- eta jarduera-araudiak ematen dioten beste edozein aginpide.

MUKUSULUBA HLHIko OOG-k honako hauek osatzen dute:

- a) Zuzendaria, OOGren presidentea izango da.
- b) Ikasketa-burua
- c) Idazkaria, hitza izango du, baina botorik ez.
- d) 10 irakasle, zikloen arteko oreka mantentzea saiatuko da.
- e) 13 familien ordezkari
- f) Ez irakaslea den ordezkari bat.
- g) Udaletxeko ordezkaria

7. artikulua.- OOG hauteste eta berritzeaz

Bi urtetan behin, OOGko kideen erdiak berrituko dira. Berritze hori txandaka gauzatuko da, halaxe ezarri baita OOGak arautzen dituen Dekretuan eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak argitaratu dituen deialdietan.

8. artikulua. Presidentea eta idazkaria aldatzeaz

ANTOLAKUNTZA ETA JARDUERA ARAUDIA
MUKUSULUBA HLHI

Zuzendaria kanpoan bada, ikastetxeko burua eta OOGren presidentea IB izango da, eta Ikasketa Burua gaixorik edo kanpoan balego, dauden irakasleen artean zaharrenak egingo du.

Idazkaria OOG bileran ez balego, ikastetxeko OOGko irakasle berrienak hartuko du idazkariaren lekua. Pertsona horrek, irakasle den aldetik, botoa emateko eskubidea izaten jarraituko du.

9. artikulua. OOGren funtzionamendu-erregimena

OOGren bilerak kide guztiak bertaratu ahal diren orduan eta egunean egingo dira. Zuzendariak bileraren deialdia bidaliko die OOGko kideei. Deialdiarekin batera, honako hauek helaraziko dizkie: bileraren gai-zerrenda; eztabaidagai izango diren dokumentuak; eta, hala badagokio, onespena. Kideek, beraz, bilera egin baino astebete lehenago jasoko dituzte agiri horiek guztiak.

Ezohiko bileretarako deiak egin daitezke, betiere, berrogeita zortzi orduz aitzin dei egiten badira. Hala gerta daiteke, premiaz landu behar den auzirik badago.

OOG hiruhilekoan behin bilduko da gutxienez. OOG bilduko da zuzendariak hala eskatzen duenean edo OOGko kideen heren batek hala nahi duenean. Edonola ere, ikasturtearen hasieran eta amaieran bilera bana egin beharko ditu nahitaez. OOGko kide guztiak derrigor joan beharko dute OOGren bileretara.

OOGk gehiengo soilez hartuko ditu akordioak, kasu hauetan izan ezik:

a) Hezkuntza-proiektua, urteko plana eta AJA nahiz AJAren aldaketak onetsi behar direnean. Horiek guztiak gehiengo osoz onartuko dira.

b) Zuzendaria berriz izendatzeko proposamena onetsi behar denean. Proposamen hori bi hereneko gehiengoaz onetsiko da.

Araudi honetan eta hezkuntzako legeetan aurreikusi ez diren OOGri buruzko auziak ebazteko, administrazio-jardunbidearen Legeko II. tituluko 2. kapituluan ezarritakoa beteko da.

10. artikulua. OOGko batzordeak:

1.- Batzorde iraunkorra izango da eta ondoko kide hauek osatuko dituzte:

- a) Zuzendariak.
- b) 2 irakaslek.
- c) ikasleen hiru gurasok.
- d) udaletxeko ordezkaria

Organo horrek gehiengo hartuko ditu erabakiak, boto haztatuaren sistemaren bidez. Batzorde iraunkorrak honako betebeharrak izango ditu:

- a) OOGren gai-ordena proposatu.
- b) AJA egin eta aldatu, aurretik Klaustro eta Gurasoen Batzarretatik irtendako proposamenak kontuan izanda. Behin akordio batera helduta, OOG-k onartuko du.
- c) Eskolaz kanpoko jardueren plangintza diseinatu, eta betetzen direla ziurtatu.
- d) Jantokiaren martxaz arduratu.
- e) OOG-k onartuta duen eskolaz kanpoko jardueren memoria.

ANTOLAKUNTZA ETA JARDUERA ARAUDIA

MUKUSULUBA HLHI

f) Zuzendaritza taldearekin kolaboratu kudeaketa, formazio, urteko plangintza eta memoria egiteko orduan.

2.- Jantoki batzordea: MUKUSULUBA HLHIIn, era honetan osatuko da:

- a) Ikasketa-burua
- b) Jantoki arduraduna
- c) 2 irakasle
- d) 3 guraso.
- e) Jantokiko 2 langile (sukaldekoa eta begiralea)

Jantoki batzordeak bi funtzio nagusi izango ditu:

- a) Jantokiaren funtzionamendua gainbegiratzea.
- b) Jantokiko arauak betearaztea, eta arazoak daudenean konponbideak bilatzea.

3.- Ekonomia Batzordea: Batzorde horren osaera era honetan izango da:

- a) Idazkaria.
- b) 2 irakasle.
- c) 3 guraso.

Bere eginkizunak hauek dira:

- a) Eskolako aurrekontuak diseinatu, OOG-k onar dezan.
- b) Urteko balantzea egin, OOG-k onar dezan.
- c) Ikastetxeko ohiko martxa ekonomikoa kontrolatu, noizbehinka idazkariarekin egingo diren bileren bidez.
- d) OOG-ri informatzea ikastetxean erosketa handiak egitearen beharra ikusten bada.
- e) Liburu maileguaren programa gainbegiratzea, eta erreklamazioak ebatzea.

4.- Eskolaz kanpoko batzordea: Kideak izango dira:

- a) 2 irakasle
- b) 3 guraso
- c) Zerbitzuetako langilea

Bere eginkizuna eskolaz kanpoko jardueren funtzionamenduari buruzko informazioa izatea izango da, eta arazorik balego, konponbidean laguntzea.

Edozein arazo eta gai puntualetarako, OOG-k batzorde bereziak eratu ditzake. OOG bilera batean erabakiko da zein batzorde eratu, osaera eta beren egitekoak.

Azken urteotan, 2003 urtea baino lehenagotik eta lanak amaitu arte, **Lanen batzordea** daukagu.

Kideak dira:

- a) Zuzendaria
- b) Irakasle 1
- c) 3 guraso

Eta bere eginkizuna da lanen proiektua, exekuzioa eta erreklamazioak aztertzea eta bideratzea.

II. ATALA. IRAKASLEEN KLAUSTROA

11. artikulua.- Irakasleen klaustroaren ezaugarriez eta osaeraz

Irakasleen klaustroa, MUKUSULUBA HLHIko aginte-organoetako bat izateaz gain, irakasleen berezko parte hartze organoa da. Are gehiago, koordinazio didaktikorako ikastetxean dagoen organo gorenena da. Klaustroak, halaber, ikastetxeko hezkuntza-alderdi guztiak planteatzeko, koordinatzeko erabakiak hartzeko eta informazioa emateko ardura du.

Klaustroak zuzendaria izango du buru eta ikastetxean irakasle aritzen diren guztiek osatuko dute. Eskolako idazkaria, klaustroko idazkari ere izango da.

Zuzendaririk egon ezean, ikasketa burua izango da klaustroko buru. Eta zuzendaririk nahiz ikasketa bururik ez badago, antzinasun handiena duen irakaslea izango da klaustroko buru. Idazkaririk egon ezean, aitzitik, irakasleen artean berrienak beteko ditu idazkariaren funtzioak.

12. artikulua.- Klaustroaren funtzionamendu-erregimenaz

Klaustroa hiruhilekoan behin bilduko da gutxienez, zuzendariak deialdia egin edo klaustroa osatzen duten kideen gutxienez heren batek hala eskatzen badu. Horrez gain, bi bilkura egin beharko dira nahitaez: ikasturtearen hasieran bat eta amaieran beste bat.

Klaustroko kide guztiek derrigor joan beharko dute klaustroaren bileretara.

Ohiko bileretarako deia bilera baino hiru egun lehenago egingo da gutxienez. Salbuespen moduan, ezohiko bileretarako deiak egin daitezke, betiere, hogeita lau orduko aurrerapenez egiten badira. Hala egin daiteke premiaz landu behar den auziren bat badago.

Klaustro bakoitzaren akta idatziko da. Bertan data, etorri diren irakasleen izenak, gaiordena, lekua eta denbora, eztabaida bakoitzaren alde nabarmenenak, eta, batez ere, hartu izan diren akordioak agertuko dira.

13. artikulua.- Klaustroaren eskumenez

Irakasle-klaustroaren egitekoak honako hauek dira: (EEPL 35. artikulua)

- a) Ikastetxearen ikasketa-proiektua eta irakaskuntza-jardunen egitaraua egin eta onartzea, ordezkari-organoren gorenak irizpena eman ondoren; organo horrek erabakiko du ikastetxearen hezkuntza-proiektuan jasotako aztergaien egokitasunaz.
- b) Irakaskuntza-jardueren egitarauaren betetze-mailaren berri ematea ordezkari-organorenari, urteko txostena egin dezan.
- c) Ikasleak ebaluatu eta berreskuratzeko lanari buruzko irizpideak ezarri eta koordinatzea.
- d) Ikasleriaren bideratze-eginkizunak eta tutoretza planifikatzea eta zuzentzea.
- e) Ikastetxean garatu behar diren pedagogiazko saioetarako edo ikerketarako ekinbideak sustatzea.

f) Ikastetxearen jarduera-arauak onartzea.

g) Irakasle-klaustroak hautatuko ditu ikastetxeko ordezkari-organoren bere ordezkariak.

h) Hezkuntza sailak antolaturiko ebaluazio-prozesuetatik eratorritako ondorioak aztertu eta baloratu.

III. ATALA. ZUZENDARITZA TALDEA

14. artikulua.- Zuzendaritza taldeaz

Pertsona bakarreko aginte-organismoek MUKUSULUBA HLHIko zuzendaritza taldea osatzen dute. Horiek guztiek, modu koordinatuan, betetzen dituzte beren funtzioak.

Zuzendaritza taldeak EEPLko 36. artikuluan esleitzen zaizkion funtzioak izango ditu baita OOGk edo irakasleen klaustroak bere esku uzten dituenak ere.

1.- Zuzendariak, ikasketa-buruak, idazkariak eta, hala dagokionean, ikastetxeko administratzaileak osatuko dute zuzendaritza-taldea.

2.- Ondorengoak dira zuzendaritza-taldearen egitekoak:

a) Ikastetxearen zuzendaritza eta koordinaziorako irizpideak erabakitze eta jarduerari begira garrantzi handiagoko erabakiak hartzeko orduan zuzendariari laguntzea.

b) Kudeaketa-proiektua, prestakuntza-jardueren, eskolaz kanpoko eta osagarrien egitaraua eta urteko kudeaketa-egitaraua gauzatzea, ordezkari-organoren onar ditzan.

c) Aurreko puntuan adierazitako programen burutzapena zaintzea eta koordinatzea, eta horien betetze-mailaren berri ematea ordezkari-organoren onar ditzan.

d) Urteko txostenaren zirriborroa egitea, ordezkari-organoren onar ditzan.

e) OOGri euskal eskola publikoko beste zenbait ikastetxerekin lankidetzaren harremanak izateko proposamena egitea eta, halaber, kultura eta hezkuntza-xedez, erakundeekin itunak izenpetzeko proposamenak egitea, organoren onar ditzan, egoki baderitzo, hezkuntza-administrazioari aurkez diezazkion.

f) Irakasle-taldeak antolatzea eta irakasleak beren jardueretara atxikitze irizpideak erabakitzea ikasturte bakoitzaren hasieran.

g) Eskolara heltzen zaion arau, ikastaro, deialdi eta abarren berri emango dio klaustroari, asteroko koordinazio bileretan.

3.- Zuzendaritza taldeak, egoki baderitzo, hezkuntza-komunitateko zeinahi kide gonbidatu dezake bere bileretara aholkuak eman ditzan. Era berean, egoki deritzaion funtzioak ikastetxeko

irakasleen esku utz ditzake, batez ere, zikloko edo etapako koordinatzaileen esku edota proiektu zehatzez arduratzen diren irakasleen esku.

III. KAPITULUA: PERTSONA BAKARREKO AGINTE-ORGANOAK

15. artikulua.- Zuzendariaz

MUKUSULUBA HLHIko zuzendaria ikastetxearen ordezkari izango da ondorio guztietarako. Zuzendaria, halaber, Hezkuntza Administrazioaren ordezkari da ikastetxean, eta ikastetxeko taldeko aginte-organoen buru da.

Zuzendaria EEPLko 34. artikuluan ezarri diren eskuduntzak eta eskumenak ditu.

- a) Ikastetxearen ordezkari ofiziala egitea.
- b) Ikastetxearen jardura zuzendu eta koordinatzea; ikas-ospakizunetarako eta batzar-organoen bileretarako dei egitea eta horietan mahaiburu izatea.
- c) Gastuak egiteko baimena ematea, ikastetxearen urteko kudeaketa-egitarauarekin bat etorritik.
- d) Lege honen 63. atalak aipatzen dituen lan-, zerbitzu- eta hornikuntza-hitzarmenak egitea.
- e) Egiaztapenak eta agiri ofizialak ikusi-onestea.
- f) Arauak, erabakiak, proiektuak eta jardura-egitarauak eta ikastetxearen jarduerari eragiten dioten erabakiak betearaztea.
- g) Zuzendaritza-karguen izendapena proposatzea ordezkari-organoren bidez.
- h) Ikastetxeari atxikitako langile guztien buruzagitza izatea.
- i) Elkarbizitza sustatzea, bitartekotza bermatzea, eta ikasleen eskubide eta betebeharren dekretuaren arabera jokatu.
- j) Klaustroaren eta OOGren iritzia entzunda, eskolako gelak eta lokalak uztea ikasleen eskolaz kanpoko jarduerak egin ditzaten, eskolako ikasleen guraso elkarten funtzionamendurako, hezkuntza komunitateko sektore ezberdinek biltzeko eskubidea erabil dezaten edota kanpoko talderen batek erabil ditzaten.
- k) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko organoek ordezkotzan eman diezazkioten gainerako aginpideak; bestelako arauak eta ikastetxearen antolakuntza- eta jardura-araudiak eman diezazkiotenak.

16. artikulua.- Ikasketa-buruaz

ANTOLAKUNTZA ETA JARDUERA ARAUDIA

MUKUSULUBA HLHI

Ikasketa buruak, zuzendaritza taldeko kide den aldetik dituen eskumenez gain, EEPLren 41. artikuluan ezarri zaizkionak izango ditu. Ikasketa burua, zuzendariaren agintepean, irakasleen buru izango da erregimen akademikoarekin zerikusia duten auzi guztietan. Horrez gain, departamentuko buruen eta tutoreen jarduna koordinatuko du.

Ikasketa burua da ikasketa-proiektua eta irakaskuntza-jardueren egitaraua koordinatu eta gauzatzen direla zaintzeko ardura duen organoa. Ikastetxeko zuzendaritza-taldeak onartutako irizpideekin bat etorriz, ondorengo egitekoak ditu:

- a) Zuzendaria ordezkatzeari gaitzespena bada.
- b) Irakaskuntzako jarduerak koordinatzea (gelak, zikloak...)
- c) Eskolako ordutegiak egitea eta betetzen direla zaintzea.
- d) Irakasle bakoitzari ikastetxeko gela bat edo gehiago atxikitzea.
- e) Elkarbizitza erraztea, eta komunitatearen giza-elementuen artean, errespetu eta tolerantziaz joka dezaten ziurtatzea, ikasleen eskubideak eta betebeharren araudia erreferentia izanik.
- f) Atsedendietan eskola antolatu, ikasle guztiek behar bezalako atentzioa izan dezaten.
- g) Arauek eta ikastetxearen antolakuntza eta jardueraren araudiak aitortzeko gainerako egitekoak.

17. artikulua.- Idazkariak

Idazkariak, zuzendaritza taldeko kide denetik dituen eskumenez gain, EEPLren 42. artikuluan ezarri zaizkionak izango ditu. Zuzendariaren agintepean, ikastetxean aritzen diren administrazioko eta zerbitzu-talderako langileen buru izango da.

Idazkariak ondorengo egitekoak izango ditu:

- a) Ordezkaritza-organoren, ikastetxeko zuzendaritza-taldearen eta irakasle-klaustroaren bilkuretako gai-zerrendan sartu beharreko gaiak prestatzea, organo horietako presidentek ezarritakoaren arabera, eta organo horien bilkuretako akta egitea.
- b) Aktak, espedienteak eta ikastetxearen beraren agiriak zaintzea, eta bertako organoen eskueran izatea. Ikastetxeko irakas-baliabideak zaintzea.
- c) Zuzendariaren oniritziaz, ikastetxearen egintza, erabaki, hitzarmen, aurrekin, liburu eta agiri guztiak egiaztatzea.
- d) Eskolako inbentarioa gaurkoturik mantentzea.
- e) Eskolako materiala erosi, eta bere egoera onean egon dadin ahalegindu
- f) Aurrekontuak prestatu.
- g) Eskolako kontuak eraman eta hauen kontu eman OOG eta administrazioari.

18. artikulua.- Pertsona bakarreko aginte-organok izendatze eta kargua uzteaz

ANTOLAKUNTZA ETA JARDUERA ARAUDIA

MUKUSULUBA HLHI

EEPLn nahiz arauzko xedapenetan aurreikusitakoa beteko da pertsona bakarreko aginte-
organoak izendatzeko eta izendatuek kargua uzteko.

- a) Zuzendariak, bere agintaldia amaitzen denean, kargua utziko du.
- b) Hala eta guztiz ere, bere funtzioak behar bezala beteko ez balitu, OOG-k Hezkuntza Sailari kargutik kentzea eskatu ahal dio. Departamentuak, espedientea zabaldu eta aztertu ostean, kargutik kendu dezake.
- c) Goiko kasuan egotekotan, berarekin batera zuzendaritza taldean egon diren karguek ere amaituko dute. Hezkuntza Sailak izendatuko du zuzendari berria eta azken honek bete taldea.
- d) Ikasketa-buruak eta idazkariak, karguak utziko dituzte, baldin eta proposatu zituen zuzendariak kargua uzten badu.
- e) Hala eta guztiz ere, zuzendariak ikasketa burua edo idazkariaren lanetan irregulartasunak ikusiko balitu, OOGri bere karguak uztea eskatu ahal dio. OOG-k espediente zabaldu eta aztertu ondoren, karguetatik ken ditzake (botoen gehiengoa behar dira horretarako). Hau guztia akta liburuan isla zuzena izan beharko du, eta ahalik eta lasterren, informatu behar izango zaio Bizkaiko hezkuntza delegatu jaun/andreari.
- f) Era honetan sorturiko bakantea, zuzendariak proposaturiko beste edozein irakaslek bete dezake, eta OOG-k onartzen badu. Proposamen hau Bizkaiko Hezkuntza delegatuari bidaliko zaio, ofizialki izenda ditzaten.

19. artikulua.- Zuzendaritza taldeko kideak ordezkatzear

- a) Zuzendaria kanpoan bada edo gaixo badago, ikasketa buruak beteko ditu haren funtzioak behin-behinekoz. Bizkaiko Ordezkaritzak bidaliko duen ordezkoak, zuzendariak, Ikasketa buruak edo idazkariak egiten dituen umeen aurreko jarduerak egingo ditu, horrela zuzendaritza taldeak ordu guztiak izango ditu bere lanak aurrera eramateko.
- b) Ikasketa-burua kanpoan bada edo gaixo badago, zuzendariak agintzen duen irakasleak beteko ditu haren funtzioak aldi baterako. Zuzendariak bere erabakiaren berri emango dio OOGri.
- c) Era berean, idazkaria kanpoan bada edo gaixo badago, zuzendariak izendatu duen irakasleak beteko ditu idazkariaren funtzioak. Zuzendariak gertakariaren berri eman behako dio OOGri.
- d) Zuzendaria kanpoan bada edo gaixo badago, ikasketa burua jarduneko zuzendari izango da. Jarduneko zuzendariaren eskumen berak izango ditu, baita artikulua honetako b eta c paragrafoetan jaso direnak ere.

IV. KAPITULUA. IRAKASKUNTZA KOORDINATZEKO ORGANOAK

20. artikulua.- MUKUSULUBA HLHIko koordinazio-organoez

MUKUSULUBA HLHIIn, ikas-komunitate izateko bidean dagoenetik, honako batzorde hauek izan

ditu indarrean:

- A) Pedagogi Batzordea.
- B) Tutoreak.
- D) Taldeko, zikloko edota etapako irakasle taldeak.
- E) A21 + euskara batzordea
- G) Kalitate batzordea

I. ATALA. PEDAGOGI-BATZORDEA

21. artikulua.- Osaeraz

Batzordea, honako pertsona hauek osatzen dute:

- a) Ikasketa burua.
- b) Zikloetako koordinatzaileak
- c) Aholkularia
- d) Bibliotekako arduraduna

22.- Batzordearen eskumenez

Koordinazio Pedagogikorako Batzordea irakasleen klaustroko batzordea da. Koordinazio Pedagogikorako Batzordearen funtzio nagusia curriculum-proiektua eta proiektuari egin dakizkiokeen aldaketak koordinatzea izango da.

Egiteko hori betetzeko jarraian aipatuko ditugun eskumenak izango ditu, betiere, irakasleen klaustroaren zaintzapean egonik:

- a) Etapako curriculum-proiektuak lantzeko eta berrikusteko zuzentarau orokorrak ezartzea.
- b) Etapako curriculum-proiektuak nahiz berorien zuzenketak lantzeko eta berrikusteko prozesua ikuskatzea. Etapako curriculum-proiektuak nahiz berorien zuzenketak koordinatzea eta beroriek idaztea. Etapako curriculum-proiektuak ikastetxearen hezkuntza-proiektuarekin bat datozela ziurtatzea.
- c) Klaustroari curriculum-proiektuak proposatzea, onar ditzan
- d) Ikasturte hasieran, eta aurreko ikasturteko memoria kontuan izanda, eskolako ordutegiak egiteko irizpide nagusiak finkatzea.
- e) Etapako curriculum-proiektuak betetzen direla zaintzea eta ebaluatzea.
- f) Klaustroari ebaluazio- eta kalifikazio-bileren plangintza orokorra proposatzea, ikasketa buruak diotenaren arabera.
- g) Irakasleen klaustroari planak proposatzea ondoko hauek ebaluatu ditzan: etapa bakoitzeko curriculum-proiektua, hezkuntza-proiektuaren irakaskuntza, urteko programazio orokorra, ikastetxean eskola-errendimenduak izan duen eboluzioa eta irakaskuntza-prozesua.

h) Indartze saioak, zein ikaslerekin, zein irakaslek, saioak, eta nola burutuko diren erabakitzea, betiere, tutorearen eta aholkulariaren iritzia kontuan izanda.

i) Testu liburuak aldatzeko proposamenik balego, dauden aukera guztiak aztertu eta eskolako metodologiarekin bat datozen argitaletxeak aukeratu, betiere, aldaketa eskatu duen zikloaren arrazoiak entzunda, eta aldaketa horrek beste zikloetan izan ditzaketen ondorioak aztertutik.

j) Ebaluazio diagnostikoaren emaitzak aztertzea.

k) Ziklo bileretan azterketa bera egin dezaten bideratzea.

l) Hobekuntza planerako irizpide nagusiak markatu, betiere zikloetan esan dena kontuan izanda.

m) Klaustro batean guzti honen berri ematea.

II. ATALA.- TUTOREAK ETA IKASLE TALDEEN IRAKASLEAK

23. artikulua.- Tutoretzaz eta tutoreak izendatzeaz

a) Tutore izatea eta ikasleak orientatzea irakasleen berezko funtzio dira.

b) MUKUSULUBA HLHIko ikasle talde bakoitzak bere tutorea izango du, eta ondoko irakaslea zein zikloetakoekin koordinatu egin behar izango du.

c) Zuzendariak izendatuko du talde bakoitzeko tutorea. Horrela, ikasketa buruaren proposamena kontuan harturik, ikasleei eskola ematen dien irakasleetako bat aukeratuko du, betiere, ikasturtea antolatzeari buruz Hezkuntza Sailburuordearen ebazpenean jaso diren jarraibideekin bat etorriz.

d) Hala eta guztiz ere, adosturiko zenbait irizpide izango ditu kontuan: irakasle berberak ziklo amaitzea, irakasle bakoitzak dituen habilitazioak, irakaskuntzan dituen antzinasuna.

e) Ikasketa buruak tutoreen lana koordinatuko du eta, aldian aldiro, beharrezkoak diren bilerak egingo ditu tutoretzek egoki funtziona dezaten.

24. artikulua.- Tutoreen funtzioak

a) Taldeko ikasleen ebaluazio eta segimendu orokorra egitea. Horretarako, ikasleen ikaskuntza hobetzeko beharrezkoak diren neurriak ezarriko dituzte, betiere, ebaluazioari buruzko legeetan ezarri diren baldintzei jarraiki.

c) Taldeko bizikidetza-giroa hobetzeko beharrezkoak diren jarduerak ezartzea.

d) Taldearen baitan sortzen diren gatazkak modu koordinatuan lantzea eta gatazka horiek ebazteko neurriak egokienak ezartzea.

e) Taldeko ikasleei proposatzen zaizkien ikaskuntza- nahiz irakaskuntza-jarduerak koordinaturik egon daitezela zaintzea.

f) Taldeko ikasleen gurasoei edo tutoreei emango zaien informazioa ezagutzea eta hura osatzen laguntzea.

g) Ikastetxearen barne-araudian ezartzen diren gainerako funtzioak.

- h) Euskaraz aritu daitezen motibatu.
- i) Koheziketaz prestatu bere jarduera.
- j) PTE edota aholkulariarekin koordinatuta egotea, Egokitzapen curricularrak edo indartze neurriak gauzatzeko orduan.
- k) Gelatik pasatzen diren beste irakasleekin koordinatuta egotea, eta promozionatzeko orduan, hauen iritziak kontuan izan.
- l) Bere tutoretzapean dagoen ikasleen dokumentazio akademikoa betetzea.
- m) Plangintza tutoriala diseinatzea.

25.artikulua.- Ikastaldeko irakasle taldearen osaeraz eta ezaugarriez

Ikastaldeko irakasle taldeak, talde horretan esku hartzen duten irakasleen taldea osatzen dute, eta tutoreak koordinaturik egon beharko dute.

Irakasle talde hau bilduko da ebaluazio saioetan, eta ikasketa buruak edo tutoreak beharrezko ikusten duen guztietan.

26.artikulua.- Ikastaldeko irakasle taldearen funtzioez

- a) Gela horretarako ikasleen ebaluazioa eta jarraipena egitea.
- b) Taldean elkarbizitza hobetzeko beharrezko ikusten dituzten neurriak hartu eta gauzatzea.
- c) Taldean sor daitezkeen gatazkak, era koordinatu batean lantzea.
- d) Euskararen presentzia areagotzeko, neurriak era koordinatu batean gauzatzea.
- e) Gurasoei emango zaion informazioa ezagutu eta bere elaborazioan parte hartzea.

27.artikulua.- Zikloko irakasleen taldea, (ziklo bilera)

Zikloan esku hartzen duten irakasle guztien bilera da.

Ziklo bakoitzak koordinatzaile bat izango du, eta bere zeregina honako hau izango da:

- a) Zuzendariarengandik hartu duen informazioa ziklo-kideei helaraztea.
- b) Beren kideengandik sor daitezkeen iradokizunak, iritziak, proposamenak, koordinatzaileen bilerara eramatea.
- c) Zikloan gauzatu beharreko lanak koordinatzea: urteko plangintza, memoriak, HNB, A21 edo bestelako batzordeetatik heltzen diren lan egitekoak.

28.- Zikloko irakasleen taldearen funtzioez

ANTOLAKUNTZA ETA JARDUERA ARAUDIA

MUKUSULUBA HLHI

Zikloek, eskola antolatzeke beharrezkoak diren instrumentu eta asmoetan parte hartuko dute. Zikloei, honako lan hauek egitea dagokie:

- a) Eskolak duen IPC (Ikastetxeko Proiektu Curricularra) erreferente izanik, beren programazioak gauzatu.
- b) Egindako programazioak praktikan jarri ostean, ondorioak atera, eta horien arabera, programazioetan aldaketak planifikatu.
- c) Edozein hezkuntza jardueraren aurrean, irakasleen irizpideak bateratu.
- d) Formazio proiektu edo asmoak planteatu zuzendaritza taldeari.
- e) Ikasturteko hasieran gurasoekin egiten den gelatako bileren informazioa prestatu.
- f) Ikasturte hasierako gelako ikasleen gurasoekin izaten den bileren akta txikia idatzi eta gorde.
- g) Gelako ikasleen gurasoren batekin bildu behar izatekotan (tutorea, beste edozein irakasle edo gurasoen inizatibaz izanda ere), koaderno batean apuntatuko du, eguna, ordua, bileraren nondik norakoak eta harturiko erabakiak.

29.artikulua.- Irakasleen huts egiteaz eta ordezkapenaz

MUKUSULUBA HLHIko irakasleek derrigorrez justifikatuko dituzte beren huts egiteak zuzendariaren aurrean, posible den heinean, abisatuko dio aurretik, ikasleen geletan hutsa ahalik eta eragin gutxien izan dezan.

Irakasle batek huts egitean, honako neurri hauek hartuko dira:

- a) Ikasketa buruak umerik gabe dauden irakasleetatik lehendabizikoa bidaliko du gela hartara. Lehentasuna dauka taldea atenditzeak, koordinazio bilera, proiektu edo indartze neurrien gainetik.
- b) Ondoko gelako irakasleak orientatuko dio ordezkoari zer eta nola egin.
- d) Huts egiten duen irakaslea, aurretik baldin badaki, derrigortuta dago idatzita uztera irakasleek egin behar duten lan egoki eta nahikoa ordezko irakasleak zer eta nola egin behar duen jakin dezan.
- d) Huts egin duen irakasleak, derrigortuta dago baja eskuratu bezain pronto eskolara deitzera, ahalik eta lasterren ordezkoa gurera etor dadin.

30. A21 eta normalkuntza batzordea

Bere osaera honako hau izango da:

- a) A21eko koordinatzailea
- b) HNAT
- c) 5 irakasle

Batzorde honek proiektu bien inguruko jarduerak eta informazioak bultzatzen eta bideratzen ditu.

31. Kalitate batzordea

Kalitatearen proiektuaren inguruko jarduerak antolatzen ditu.

V. KAPITULUA. PARTAIDETZA ORGANO BEREZIAK

I. ATALA. GURASOEN BATZARRA, IKASLEEN GURASO ELKARTEAK

32. artikulua.- Gurasoen Batzarraz

a) MUKUSULUBA HLHIko Gurasoen Batzarraren bidez, gurasoek ikastetxearen kudeaketan parte har dezakete. Ikasle guztien gurasoek edo beren tutore legalek osatuko dute organo hori. Guraso elkarteko kideek egingo dute biltzeko deialdia, eta, hala eskatuz gero, zuzendaria ere bertan egongo da.

b) Gurasoen Batzarrak honako funtzio hauek beteko ditu:

a. Egokitzat jotzen dituen proposamenak ikastetxeko gainerako organoetara luzatzea, organo horien eskumenekoak diren gaiei buruzkoak. Helarazi diezaieke, beraz, irakaskuntza-jardueren, prestakuntza-jardueren, eskolaz kanpoko jardueren eta jarduera osagarrien programa nahiz urteko kudeaketa-programa gauzatzearen balioespena.

b. Zuzendaritza taldearekin eta klaustroarekin kontaktuan egotea, ikastetxearen hezkuntza-proiektuaren garapenean ahalik eta lankidetzat handiena lortze aldera.

c. Gurasoen ekimena sustatzea, ikastetxearen bizitzan aktiboki parte har dezaten.

d. Taldeko organoetan gurasoen ordezkari direnak Gurasoen Batzarraren bilkuretara agertzeko eskatzea, egindako kudeaketari buruzko informazioa eman dezaten.

e. Funtzionamendurako bere arauak onestea.

33. artikulua.- Ikasleen guraso-elkarteak

a) MUKUSULUBA HLHIk, ikastetxean eratu den Mendikoa ikasleen guraso-elkarteak aintzat hartu behar du eta gela bat egokitu zaie, modu egonkor batean bere jarduerak antola ditzaten.

b) Bigarren elkarte bat sortzekotan, lokala izan dezaten ahaleginak egin behar izango ditu zuzendariak.

c) Ikastetxeko aginte-organismoek ez dituzte ikasleen gurasoak edota ikastetxeko ikasleak jardutez edo ez-egitez behartuko elkarte eratuetakoa batean izena ematera ezta elkarte eratuetakoa bat diruz laguntzera ere.

34. artikulua. - Elkarte legalki eratuen bidez parte hartzea

ANTOLAKUNTZA ETA JARDUERA ARAUDIA
MUKUSULUBA HLHI

Ikastetxean eratu diren ikasleen guraso-elkarteek ondoko hauek egin ditzakete:

- a) OOGri hezkuntza-proiektua eta urteko programazio orokorra lantzeko nahiz aldatzeko proposamenak egin.
- b) OOGri ikastetxearen martxari buruz egoki deritzon alderdien berri eman.
- c) Hezkuntza-komunitateko kide guztiei bere jardueren berri eman.
- d) OOGn landu diren gaiei buruzko informazioa jaso. OOGren gai-zerrenda jasotzea hark bilerak egin aurretik, proposamenak prestatu ahal izateko.
- e) OOGrako txostenak egin, bai guraso- nahiz ikasle-elkarteen berezko ekimenez bai OOGk hala eskatuta.
- f) AJA aldatzeko proposamenak landu.
- g) Jarduera osagarriak egiteko proposatzea.
- h) Emaidza akademiko orokorren nahiz berorien gain ikastetxeak egiten duen balioespenaren berri izatea.
- i) Hezkuntza-proiektuaren, curriculum-proiektuen eta proiektu horien aldaketen ale bat jasotzea.
- j) Ikastetxeak hautatu dituen testuliburuei eta ikasmaterialei buruzko informazioa jasotzea.
- k) Hezkuntza-komunitateko kide guztien arteko elkarlana sustatzea.
- l) Ikastetxeko aretoak erabiltzea, zuzendariak ezarritako baldintzetan.

35. artikulua.- *Ikasleen guraso eta tutoreen eskubide eta betebeharez*

MUKUSULUBA HLHIko edozein ikasleren guraso den orok, honako **eskubide** hauek ditu:

- a) Eskolarekiko edozein harreman mota euskaraz gauzatzeko.
- b) Arraza, kolore, sexu edo erlijio bereizkeriarik ez jasateko.
- c) Ikastetxearen kudeaketaren ohiko martxan parte hartzeko, horretarako MUKUSULUBA HLHI-k bere buruarentzat eraiki dituen bideetatik bada.
- d) Komunitatean integratzeko erraztasunak izateko.
- e) Beren seme-alaben hezkuntzarako interesgarri izan daitezkeen gaiei buruz informaturik izateko. (Tutorea, zikloko edozein irakaslek, zuzendariak, aholkulariak, PTE...)
- f) Beren seme-alabei buruz ezarritako zigorren bati buruz, tutoreari, edozein irakasleri, zuzendaritza taldeko edozein kideri... beren iritzia esateko.

ANTOLAKUNTZA ETA JARDUERA ARAUDIA

MUKUSULUBA HLHI

- a. Ohiko prozedura honako hau izango da:
 - Gurasoek tutorearekin komentatuko dute.
 - Nahiko izango ez balitz, ikasketa-burua tartean sartuko litzateke.
- g) Beren seme-alabei ezarritako zigorren bati buruz informatuta izateko.

MUKUSULUBA HLHIko edozein ikasleren guraso den orok, honako **betebehar** hauek ditu

- a) Arraza, kolore, erlijio, eta sexu bazterkeriarik ez egiteko.
- b) Beren seme-alaben emaitzen akademikoez interesa azaltzeko.
- c) Beren seme-alaben huts egiteak justifikatzeko. Idatziz egingo du eta tutoreari emango dio, umearen bidez.
- d) Ordua baino lehenago, umeak eskolatik edo jantokitik irten beharra badu, ikasleak ekarriko du idatziz eta sinatuta zein ordutan atera behar duen. Ikaslea gelan edo jantokian egongo da bere senidea bila etorri arte. Horrek atezainari, zuzendaritza taldeko edozeini edo jantokiko arduradunari esango dio eta bila joango da. Senidea ez da gelara igoko.
- e) AJA hau onartzen denean, hemengo arauak ezagutu eta onartzeko.
- f) Beren seme-alaben hezkuntza prozesuan, irakasleekin batera kolaboratzea.
- g) Familian, eskolaren gaineko iritzi ona transmititzeko, kolaborazio bide sendoak eraikitzeko.

36. artikulua.- Autonomia pedagogikoa

Euskal Eskola Publikoaren Legean ikastetxeetako autonomi pedagogikoa aitortzen da, baldin eta indarrean dagoen legearen barruan mugitzen bada, eta ezarrita dauden minimoak bere baitan agertzen badira; ondorioz, Hezkuntza Proiektua eta Ikastetxeetako Proiektu Curricularra zehazteko orduan, hezkuntza-komunitateko inor baztertu gabe, egoki ikusiko diren erabakiak har daitezke.

Maila desberdinetako irakasle taldeak Hezkuntza Proiektua eta IPC izango dituzte erreferente ziklo eta programazioak egiteko orduan eta egoki ikusiko dituzten erabakiak hartzeko eskubidea izango dute.

Hala eta guztiz ere, hartutako erabaki horiek, Klaustro eta OOG ikuskatuak izan litezke.

Haur Hezkuntzako ordutegia, eta antolakuntza pedagogikoa eta Lehen Hezkuntzako arlo bakoitzaren ordu kopuruak, ikastetxera heltzen den kurtso hasierako zirkularraren arabera banatuko dira. Eta honek guztiak IPCean izango du isla.

VI. KAPITULUA. BALIABIDEEN KUDEAKETA

I ATALA. ZENBAIT ZEHAZTASUN

37. artikulua.- Kudeaketa proiektua

ANTOLAKUNTZA ETA JARDUERA ARAUDIA
MUKUSULUBA HLHI

Eskolak dituen baliabideak hezkuntza proiektuaren zerbitzurako jartzea du helburu proiektu honek. Zuzendaritza taldeak egingo du eta Klaustroak zein OOG-k onartuta izan behar du.

MUKUSULUBA HLHI-ak honako diru iturri hauek izaten ditu:

- Hezkuntza Ordezkaritza, gastu orokorretarako partida: ikasturte hasieran ezartzen da ziklo eta espezialitate bakoitzak izango duen diru kopurua. Ikasturtean zehar sortzen diren aparteko gastuak ere egiten dira. Gainerako dirua funtzionamendu orokorrerako erabiltzen da.
- Hezkuntza Sailak, hornikuntzarako partida: klaustro batean erabakiko da nola gastatu. Lehentasuna izango dute sortu berri diren espazioek eta eskola mailako erosketak, eta gero ziklo edota gelak.
- Udaletxea: Eskolaz kanpoko jarduera, irteera eta barnetegiak egiteagatik, Udalak diru-laguntza ematen digu. Diru-laguntzak zikloen artean banatuko da ziklo bakoitzak egin dituen jardueren kopurua kontuan izanda.
- Zenbait proiektu: HNB, A21, Kalitate programa...Proiektu edo egitasmo horiek aurrera eramateko beharrezkoak diren gastuei aurre egiteko erabiliko dira.

Dirua kudeatzeko modua alda daiteke, baldin eta klaustroak hola erabakiko balu.

VII. KAPITULUA: TESTU LIBURUEN ERABILPEN SOLIDARIOA IZENENKO PROGRAMA

- Hala nahi duten ikasleen gurasoek umearen ikasmailari dagozkion materialak eskuratuko dituzte zentroan bertan.
- Testu-liburuen jabetza ez da izango ikaslearena, baizik eta Hezkuntza Administrazioarena, eta ikasturtea amaitu ondoren, ikastetxean bertan utzi behar izango ditu, hurrengo ikasturtean ikasle berriek erabil ditzaten.

38. artikulua.- Programaren kudeaketaz

MUKUSULUBA HLHIko OOGri zera dagokio:

- a) Programa antolatu eta martxan jartzea.
- b) Programaren funtzionamendua onartzea
- c) Programaren martxa gainbegiratzea.
- d) Programaren kudeaketa ekonomikoa kontrolatzea eskolako idazkariarekin .

39. artikulua.- Erabilpen eta kontserbazioaz

- a) Ikasleei edo beren gurasoei liburuak forratzeko eska dakieke.
- b) Liburuetan ez da ikasleen izen-abizenik idatziko, forruaren gaineko etiketa batean ume

ANTOLAKUNTZA ETA JARDUERA ARAUDIA
MUKUSULUBA HLHI

bakoitzaren zenbakia idatziko da.

- c) Ez dira azpimarratuko, ezta arkatzez ere.
- d) Ez da tipp-ex onartuko.
- e) Gurasoen ardura da era honetan eskuratutako liburuak, egoera onean mantentzea.
- f) Gaizki tratatzeagatik lorrintzen badituzte, edo galtzen baditu, beren guraso edo tutore legalek liburuok egoera onean berriro eskolara ekartzeko beharra dute.
- g) Ikasturtea amaiturik, liburuak entregatuko dira gelan.
- h) Tutore bakoitzak liburuen egoera ebaluatuko du.
- i) Gelako irakasle tutoreak eta espezialistek, libururen bat egoera txarrean ikusten badute, liburu horien egoerarekin txosten bat egingo du eta zuzendariari emango dio. Honek OOGri informatuko dio, ikaslearen gurasoek liburu berriak eros ditzaten.
- h) Ikasleren bat hurrengo mailara igarotzen ez bada, liburu berberak erabiliko ditu. Eta tutoreak edo espezialistak eginiko txosten horretan badago, nahiz eta errepikatu liburu berriak erosi behar izango ditu.

40.artikulua.- Zigorrak

- a) Tutoreak edo espezialistak liburu bat oso gaizki dagoela esaten badute bere txostenean, elkarbizitzari kalte larria egiten dion jokabidetzat hartuko da. Gurasoek liburu edo liburuak, berdinak erosi eta ekarri behar dituzte eskolara.
- b) Testuliburu bat galtzen denean, goiko era berean jokatuko da.
- c) Libururen batek, bere barruan idazkiak, marrazkiak, oharrak... baditu, bizikidetzaren aurkako jokabide larritzat hartuko da, eta liburu berriak erosi behar dituzte.
- d) Arau hauen kopia, guraso guztiei emango zaie ikasturte hasierako bileran, eta LHko ikasleekin batera irakurriko ditu tutoreak.

41. artikulua.- Uko egitearen aukeraz.

- a) Programa honetan parte hartzea, borondatezkoa izango da eta urtero alda daiteke iritiz. Ikaslearen gurasoek eskolako tutoreari informatuko diote programan parte hartu nahi duten ala ez, ezezko kasuetan idatziz egingo du.

VIII KAPITULUA: HEZKUNTZA KOMUNITATEAZ

I. ATALA.- IKASLEAK

42. Artikulua: Absentismoaren kudeaketa

ANTOLAKUNTZA ETA JARDUERA ARAUDIA
MUKUSULUBA HLHI

Ikasleen absentismoaz, era honetan jokatu du MUKUSULUBA HLHI-k

a) Hilero bete behar dugu koadro bat ikasleen hutsegiteekin. Justifikatuta badaude idatziko da "J" eta ez badaude "EJ" eta berandu badatoz, minutuak ipintzen dira. Justifikazioa telefonoz edo idatziz egin dezake familiak ohar baten bidez ala ikaslearen agendaren bidez. Justifikazioa tutoreari ala zuzendaritza taldeari emango zaio.

b) Hutsegiteak pilatuz gero, justifikatu gabeko hutsegiteak errepikatzen badira, edota berandu heltzea maiz gertatzen bada, irakasleak familiarekin hitz egingo du, egoera argitzeko. Arazoak irauten badu, zuzendaritza taldeari jakinaraziko dio, familiarekin hitz egin dezan.

c) Familiak ez baditu hutsegiteak egoki justifikatzen, zuzendaritza taldeak udaletxeko giza-zerbitzuei eta ordezkariari emango die egoeraren berri, jarraitutako prozesua azalduta.

43. Artikulua.- Istripu eta gaixotasunez.

Ikastetxe barruko istripuen aurrean, honako protokolo hau jarriko da martxan:

a) Ikastetxean bertan, ikasleren batek istripuren bat izatekotan, hurbilen dagoen irakasleak zainduko du eta larritasun maila baloratuko du. Egoki ikusiz gero, lehendabiziko zainketak egingo dizkio: zauria ura eta xaboez edo serum fisiologikoaz garbitzea, hain zuzen.

b) Zauria larriagoa bada aseguru etxeari deituko zaio eta, aldi berean, etxekoei abisua emango zaie. Larritasun maila oso handia bada, 112 telefonora abisatuko zaie eta beraien aholkuak jarraituko ditugu. Jarraian gurasoei deituko zaie. Ospitalera eramateko moduko zauria balitz, tutoreak lagunduko du ikaslea anbulantzian, eta berarekin egongo da bere gurasoak heldu arte.

c) Gelan egonda, ikasleren bat gaixotzen bada, tutoreak gurasoei abisua emango die bila etor daitezten, bitartean ikaslea gelan egongo da bere tutorearekin senidea etorri arte. Egoera oso larria izatekotan, istripu larrien kasuan bezala jokatu da: 112 telefonora deitu eta tutorearekin joango da ospitalera gurasoak heldu arte.

d) Ikasleren batek, edozein arrazoi tarteko, eta eskolan dagoen bitartean, medikamenturen bat hartu behar badu, era honetan jokatu da:

a) Familiak idatziz ekarriko dio tutoreari medikamendua emateko baimena
b) Medikuen txostena edo errezeta eskatuko zaie, non kantitatea eta maiztasuna, era argi batean agertu behar den.

44. Artikulua.- Sarrerak eta irteerak

Sarrerak egingo dira:

- 2 urteko umeak beheko patiotik, talde bakoitza bere gelari dagokion atetik
- Beheko patioko ezkerreko atetik: 4 urteko umeak
- Beheko patioko eskumako atetik: 5 urteko umeak
- Goiko patioko ezkerreko atetik 3 urte B eta 2.- 4. eta 6. mailak.
- Goiko patioko erdiko atetik 3 urte A eta 1.- 3. eta 5. mailak.

ANTOLAKUNTZA ETA JARDUERA ARAUDIA

MUKUSULUBA HLHI

Zuzenean geletara joango dira, goizeko 9:00etan klaseak hasteko.

2 urteko ikasleek, ordutegi malguago izango dute, eta 9:05etatik 9:30ak arteko tartea dute sartzeko.

Familiaren erantzukizuna da, eskolako orduak amaitu eta umeak jasotzearena. Ikasle txikien kasuan, gurasoak berandu etortzekotan bila, era honetan jokatuko da:

- a) Ikaslea eskolan geratuko da tutorearekin, eta familiarekin harremanetan jartzen saiatuko da.
- b) Gurasoen jokabidea maiz errepikatzekotan, zuzendariak hitz egingo du gurasoekin.
- c) Eta gurasoek bere horretan segitzekotan, zuzendariak udaletxeko giza-zerbitzukoekin harremanetan jarriko da.

Eskolako orduak amaitu arte ezin izango dute ikasleek ikastetxetik irten. Irteteko gurasoek sinaturiko paper bat ekarri behar izango dute, eta hala eta guztiz ere, bere familiako bat etorriko da bere bila. Senideak atezaintzan edo Zuzendaritzan abisatuko du, eta atezainak edo Zuzendaritzako kideren bat joango da ikaslearen bila.

Ikasturte hasieran familiek ikasturteko irteerak egiteko baimena sinatuko dute. Bestalde, familiek idatziz adieraziko dute beren semea/alaba bakarrik joango den etxera eskolak amaitzean.

II ATALA. PERTSONAL EZ-IRAKASLEA

II-1.-ATEZAINAK:

Bere eginkizun nagusiak, zaintza eta mantentze lanak izaten dira. Beren eskubide, ordutegi etab. beren kategoriarik dagokion lan-hitzarmenean daude.

Beren eginkizun nagusiez aparte, ikastetxearen intereserako diren beste zenbait lan txiki egin ditzakete, zuzendariak agindurik, baldin eta lan txiki hauek ez badakarte eginkizun nagusiak alde batera uztea.

II.2.-GARBITZAILEAK.

Enpresa pribatu baten langileak dira; hortaz, beren eskubide, funtzioak, ordutegia etab. enpresarekin sinaturiko lan-hitzarmenean daude.

Irakasleren batek, garbitasun arloan, akatsik ikusten ba du, zuzendariari jakinaraziko dio, eta honek garbitzailearekin komentatuko du berriro gerta ez dadin.

Bere horretan segitzen badu, enpresako buruarekin hitz egingo du zuzendariak.

II.3.-JANTOKIKO LANGILEAK:

Honakoak dira **jantokiko arduradunaren** eginkizunak:

- a) Eskariak egitea, menuen jarraipena egitea eta gorabeherarik egotekotan, enpresa hornitzailearen arduradunari jakinaraztea, akatsak zuzen ditzan.
- b) Enpresan menu bereziak eskatzea, mediku txostena aurkezten dutenen kasuan. Menu

ANTOLAKUNTZA ETA JARDUERA ARAUDIA

MUKUSULUBA HLHI

berezia behar duten umeen izenak jantokiko leku ikusgarri batean jarri beharko dira irailaren 1. astean.

c) Jantokiko langileen (sukaldeko langileak eta begiraleak) burua izatea

d) Kudeaketa ekonomikoa: hilero kuotak kobratzea, hilero fakturak ordaintzea eta itzultako ordainagiriak erreklamatzeko.

e) Ikasturtea bukatu baino lehen, hurrengo ikasturterako ezer atzeraturik gera ez dadin, kuota guztiak, ekainekoa barne, ingresatuta egon behar dira.

f) Idazkariarekin kolaboratzea jantokiko fondoak kudeatzeko

g) Ikuskatzea, hau da, ikastolan egotea eta prest egotea jantokian sor daitezkeen arazoak konpontzeko: diziplina, begiraleekiko arazoak, istripuak, eta abar. Hau da, prest egon behar da jantokiko funtzionamendu eta antolakuntzarekin zerikusirik duen oro konpontzeko.

h) Ikasleen parte-hartzea bultzatzeko programak proposatzea OOGri.

i) Mahai-tresnen inbentarioa hiru hilean behin egitea eta falta dena eskuratzea.

j) Kontratututako enpresaren ezaugarriari eta kalitateari buruzko txostena aurkeztea OOGri, instalazioetako obrak eta hobekuntzak proposatzea.

k) Jakien eta lokalen higiena kontrolatzea.

l) Gorabeheren berri ematea ikasleen tutoreei, tutoreok gurasoei jakinaraz diezaieten edo beharrezkoa izanez gero (sukarra, kolpeak, eta abar), gurasoei zuzenean jakinaraztea.

m) Zuzendaritzarekin koordinatzea, gorabeherak, proposamenak, eta abar jakinarazteko.

n) Jantokira joatea araudi honetan jasotakoa betetzen dela egiaztatzeko: ikasleak ezin direla altxatu, ez dagoela diziplina arazorik, eta abar. Eta egunero ikuskatzea jolastokietan edo estalitako gunetan (gimnasioa, motrizitate gela, liburutegia), begiraleak behar bezala zaintzen dituztela ikasleak.

ñ) Haur eta Lehen Hezkuntzako antolaketa egunero ikuskatzea.

o) Zerbitzua behar bezala garatzeko bestelako eginkizunak, baita indarreko arautegian ezarritakoak ere.

Honakoak dira **jantokiko sukaldeko langileen** eginkizunak:

a) Jakiak prestatzea

b) Jakiak behar bezala aurkeztea, eta jantokira eramatea

c) Jakiak mahaietan zerbitzatu eta bertatik kentzea

d) Sukaldea eta bertako tresneria garbitzea

e) Jantokiko instalazioak garbitu eta martxan jartzea

f) Arduradunari jantokiko gaien inguruko informazioa helaraztea

g) Zerbitzua behar bezala funtzionarazteko beharrezkoa den beste edozein funtzio, baita indarreko legeriak ezarritakoak ere.

Ondokoak dira jantokiko **begiraleen** eginkizunak:

a) Antolatu eta bultzatu talde dinamikarako ekintzak, umeen segurtasuna bermatzen aldiberean eta elkarbizitza zainduta.

b) Nutrizio ohituren jarraipena, mahaiak zerbitzatzeko eta atenditzeko lagundu eta umeen sarrerak eta irteerak kontrolatu inor ez dadin baimenik gabe irten.

c) Ikasleak orientatu higiene ohiturak bereganatzeko eta jolaserako eta bazkal ohitura oinarritzeko praktikan jartzeko.

d) Familiei informazioa ematea txostenen bidez.

e) Ordena eta diziplina mantentzea.

f) Jantoki aldian arauak betetzen direla zaindu.

g) Arauak betetzen ez dituztenei neurri zuzentzaileak ezarri.

- h) Ikasleak zaindu 13:00etatik 15:00etara.
- i) Arazo, gora-behera, behar edo iradokizunak transmititu ikastetxeari jantoki arduradunaren bitartez.
- j) Ikasleen arazo indibidualak tratatzeko irakasleekin bildu.
- k) Jantoki aldian euskararen erabilera bultzatzea.

IX. KAPITULUA.- INSTALAZIOEZ.

1.- JANTOKIA

Jantokiko arduradunak honako arlo hauetan jarriko du arreta:

- a) Janarien kalitatean
- b) Menu bereziak behar dituzten ikasleen janarietan.
- c) Begiraleen ikasleenganako tratuan
- d) Ohiko eta ezohiko bazkaltiarren ordainketetan.

1.1.-HELBURUAK:

- a) Higiene eta elikadura orekatuen aldeko jarrerak bultzatu.
- b) Janari nahikoa, denetarikoa eta orekatua eman.
- c) Janariak ez direla jolasteko gaiak jakinarazi.
- d) Oinarrizko higiene arau hauek martxan jarri:
 - d-1) Eskuak garbitu lehen eta ostean, lurrera erortzen diren mahai-tresnak ordezkatu,
 - d-2) Mahaian jarrera egokian egon.
 - d-3) Mahai-tresnak behar bezala erabili.
- e) Arazo fisikoak dituzten ikasleak, edota haiek baino txikiagoak direnei lagundu.
- f) Jantokiko mahaiak batze-lanetan lagundu.
- g) Oihurik gabeko giroa lortu.
- h) Mahai-tresnak eta edalontziak zaindu
- i) Euskara izango da komunikazio hizkuntza.

1.2.- ARAU OROKORRAK:

ANTOLAKUNTZA ETA JARDUERA ARAUDIA

MUKUSULUBA HLHI

Jangelak duen plaza kopurua gainditzen denean, ondorengo lehentasunak jarraituko dira plazak egokitzeke:

1. Bekadun ikasleak
2. Lehenengo jantoki egunetik izena emanda daudenak
3. Gainontzeko ikasleak izen ematearen ordenan, begiralea eta officen ratioa bete arte.
4. Eskolako langileak

Neurri ez ohiko gisa, larriak diren kasuak beti ere argi eta garbi justifikatuak Jantoki administrazio eta kudeaketa zuzendaritzak baimendu beharko du.

a) Borondatezkoa da jantokira joatea, beraz, doazen guztiek bete beharko dute jantokiko araudia.

b) Jantokian ezin zaie ikasleei inongo botikarik eman.

c) Gurasoen nahia bada ikaslea jan baino lehen edo jan eta gero zentrotik irtetea, idatziz jakinarazi beharko diote arduradunari.

d) Mahaiko finkotzat jotzen dira jantokira hilean egunen %80tan joaten direnak. (4 egun HHan eta LHan)

e) Jantokiko ordutegia ikasleak eskolatik irtetean hasi eta eskolak hastean amaitzen da. Aldi horretan, ikasleak zaintzaileen ardurapean egongo dira.

f) Ikasleak arazo larriren bat badu jantokian (sukarra, istripua, eta abar), gurasoei esango zaie, arduradunaren bidez edo tutorearen bidez.

g) Gurasoak ezingo dira jantokira sartu, batzordearen baimenik gabe.

h) Errespetu falta larriak (borrokak, irainak...) egitearen ondorioz, ikasleak jangelatik kanporatua izan daiteke.

i) Haur Hezkuntzako 2 urteko ikasleek egunero eramango dute txostentxo bat, non egun horretan nola bazkaldu duten eta loaldiaren iraupena azaltzen den.

j) Gainontzeko ikasleen kasuan, hiruhilekoan behin eramango dute.

k) Ikasle guztiek plater guztietatik gutxieneko kantitate bat jan egin behar dute. Beraz, jantokiko menuak ez dira aldatuko, salbu eta medikuak halaxe agindu duenean edo ikasleak gaixotasunen bat duenean. Kasu hauetan medikuaren egiaztagiria aurkeztu beharko da.

l) Eguraldi txarra denean ikasleak jantokiko arduradunak finkatutako tokietan egongo dira. Gelak erabiltzekotan Lehen Hezkuntzan liburuak eta mahai jokoak erabiliko dituzte eta Haur Hezkuntzan eraikuntzak eta etxeko materiala. 15:00etan material guztiak ondo gordeta egon behar du.

m) Jantoki orduetan (13:00-15:00) ezin izango da tresna elektronikorik erabili (MP3, sakelako telefonoak, game boyak...), izatekotan kendu egingo zaizkie eta berreskuratzeko gurasoek etorri beharko dute.

1.3.- IRAKASLEEI DAGOKIENA:

a) Irakasle bakoitzak, jantokiko begiraleei beharrezkoa den informazio eta laguntza eskainiko die.

b) Irakasleek, jantokiko arauak komentatuko ditu ikasleekin geletan ikasturte hasieran, eta beharrezkoa balitz, ikasturtean zehar ere.

c) Begiraleek, tutoreei informatuko diete ikasle jakin batzuen portaera desegokiez, eta beharrezkoa ikusiko balute, irakasle tutoreak, indarrean dagoen ikasleen eskubide eta betebeharren dekretua aplikatuko du jantokiko begiralearekin batera.

1.4.- IKASLEEI DAGOKIENA:

ANTOLAKUNTZA ETA JARDUERA ARAUDIA

MUKUSULUBA HLHI

- a) Jantokiko arduradunak erabakiko du ikasle bakoitza zein mahaitan eta noren alboan eseriko den.
- b) Jantokian dauden bitartean, begiraleak izango dira agintedunak.
- c) Begiraleek esana egin behar dute eta errespetatu behar izango dituzte.
- d) Jantokiko orduetan, eta jaten den bitartean, ezin izango da jostailuekin ibili, begiraleak horretarako baimena eman ez badu. (2 edo 3 urteko ikasleen kasuetan)
- e) Jantoki barruan, batetik besterakoak ibiltzen egingo dira. Ez dira onartuko korrikaldi eta ikasleen arteko bultzadarik.
- f) Ikasle nagusiak txikiei lagunduko diete eta haien eredu izango dira, euskaraz hitz egiten eta portaera egokiak ezartzen.
- g) Jateko orduan, ikasle bakoitzak bere eserlekuan egon behar du altxatu gabe, besteei molestatu gabe eta oihurik egin gabe. Zerbait eskatu behar baldin badu, mahaiko arduradunari eskatuko dio.
- h) Zeharo debekatuta dago janariarekin jolastea, botatzea lurrera edota beste ikasle bati.
- i) Amaitzen dutenean, itxarongo dute eserita patiora joateko agindua izan arte.
- j) Ogia, fruta, jogurtak...jantokian bertan jatekoak dira. Ezin izango dira patioetara atera.
- k) Jantokian amaitu eta gero, begiraleek antolatuta dituzten jardueretan parte hartuko dute, beti begirale baten ardurapean.
- l) Jantokikoak ez diren ikasleak, ez dira sartuko jantokian, etxetik oso goiz eskolara heltzen badira ere.
- m) Gaizki erabili duelako, mahai-tresnaren bat apurtzen duenak, ordaindu behar izango du. (platerak, edalontziak...)

1.5.- FAMILIEI DAGOKIENA

- a) Ohiko bazkaltiarren familiei jakinaraziko zaie jantokian indarrean dauden arauak.
- b) Bazkaltiarren familiakoek, jantokian dagoen araudia eskuratzeko eskubidea izango dute.
- c) Bazkaltiarren familiakoek, euskaraz aritzeko eskubidea izango dute, jantokiko edozein informazio eskuratzekoan. (Idatziz zein ahoz)
- d) Bazkaltiarren familiakoek konpromisoa hartu behar izango dute eskolako jantokian indarrean dauden arauak etxean ezartzen, Jantokiko funtzionamendu egokiaren mesederako.
- e) Aldez aurretik jakiterik balego, familiak 24 orduko epeaz abisatuko dio jantokiko arduradunari beren seme-alabaren hutsa. Era berean, ohiko bazkaltiarra ez den ikasleren batek, eskolako jantokian gelditu nahi izanez gero, 48 orduko epeaz abisatuko du. Eta jantokiko arduradunari

ANTOLAKUNTZA ETA JARDUERA ARAUDIA
MUKUSULUBA HLHI

ordainduko dio.

f) Jantokiko ikasleren bati neurri zuzentzaileen bat ezarri behar izatekotan, jantokian indarrean dauden arauak betetzen ez dituelako, familiak prozesuaren jakitun egoteko eskubidea du, baina onartuko du eta zigorra betetzeak duen garrantziaz kontzientzia hartuko du.

g) Neurri zuzentzaileen bat jartzeko kasutan egonez gero, eta familiak ikuspuntu desberdina badu, espediente zabaldu duen batzordearen aurrean (bertan jantokiko arduradunak egon behar du) adieraziko du.

h) Familiak jantokiaren gaineko erabakietan parte hartzeko eskubide eta beharra dute, horretarako sortu den jantokiko batzordean ordezkari dituzten gurasoen bitartez.

2. - LIBURUTEGIA

Ikastetxeak eskaintzen duen beste zerbitzu bat da, ordutegia da 11:00etatik 15:00etara eta 16:30etatik 18:00etara.

2.1- ARAU OROKORRAK:

- a) Eskolako liburutegia erabil daiteke irakurtzeko eta etxerako lanak egiteko.
- b) Isil-isilik egon beharko gara.
- c) Ahaleginduko gara astiro eta zaratarik gabe mugitzen.
- d) Liburuak erabili ondoren, zeuden tokietara itzuli behar dira. Apaletan sartzerakoan, sailkatuta dauden orden berean jarri behar dira.
- e) Ordenagailuak ere erabiltzeko daude, baina kontsultarako baino ez.
- f) Eremu honetan ere, euskaraz hitz egingo dugu.
- g) Ez da batere komenigarria liburuak behin eta berriz aldatzea. Hartu baino lehen, pentsatu bilatu nahi duzunaz.
- h) Inor ez dago behartuta eskola amaitu eta liburutegira joaten, baina sartzen denak goiko arauak bete behar ditu.

3.- ORDENAGAILU GELA:

Informatika gela eskolak eskaintzen duen beste zerbitzu bat da.

3.1.- ARAU OROKORRAK

- a) Ordenagailuak denonak dira, ondo zaindu behar dira.
- b) Lana amaitzean, aulkiak behar bezala kokaturik utzi behar dira.
- c) Bozgorailuak ere amatatu behar dira.

- d) Ordenagailu gelan ezin da jan ezta edan ere.
- e) Zeharo debekaturik dago, ordenagailuak dauden mahaietan eserita egotea.
- f) Edozein zalantza izanez gero, dagoen pertsona nagusiari esan beharko zaio.

X. KAPITULUA.- IKASLEEN EBALUAZIOA.

45. artikulua.- Printzipio orokorrak

EEPL, bere 16. artikuluan honela dio:

Eskola-errendimendua objetibotasun osoko irizpideen arabera ebaluatuko da (...) Ikastetxeek beren antolakuntza- eta jarduera-araudietan ebaluazioen kalifikazioen aurkako erreklamazioak aurkezteko jardunbidea arautuko dute.

MUKUSULUBA HLHIk, goikoa bermatzeko, ariketak, azterketak eta frogak gurasoak berrikusteko aukera izatea bermatuko duen araudi argia sortuko du.

MUKUSULUBA HLHI-ko irakasleek, ikasturte hasierako batzarretan, nola ebaluatuko duten (ebaluazio irizpideak), nola eta noiz jakinaraziko zaien informazio hori guztia eta azken emaitzak berrikusteko dagoen aukeraz informatuko diete gurasoei.

46. artikulua.- ebaluazioaz

Etapako irakasle-taldeari dagokio helburu eta eduki orokorrak, eskolako testuinguru eta umeen ezaugarrietara moldatzea.

Goikoa gauzatzeko erreferentea etapako helburu orokorrak eta arlo bakoitzari dagozkion helburu orokorrak izango dira.

MUKUSULUBA HLHI-k, bere IPC ebaluatzeko irizpide eta estrategi nagusiak agertu behar ditu.

Tutoreei dagokie, IPC erreferente izanik, ikaslearen ebaluazioa egitea.

47. artikulua.- Haur Hezkuntzako Ebaluazioaz.

HASIERAKO EBALUAZIOA:

MUKUSULUBA HLHI-n hasten denean, ikasleen garapen prozesuari buruzko galdeketak jasoko ditu tutoreak. Informazioa gurasoek emango dute.

Tutoreak lehenengo hiru hilekoan zehar banakako bilerak egingo ditu gurasoekin. Bilera horietan galdeketaz hitz egingo dute, eta eskolan behatutakoaz informatuko zaie.

JARRAIANGO EBALUAZIOA:

Hezkuntza-prozesuan zehar jarraiangoa ebaluazio kualitatiboa gauzatuko du tutoreak. Ebaluazio honek zailtasunak, erraztasunak, zergatiak eta zailtasunak gainditzeko proposamenak zehaztuko ditu. Tutoreak egingo du, eta gelan esku-hartzen duten beste irakasleen iritzia edo behaketarekin osatuko du.

Honen helburua, zailtasunak ahalik eta azkarren detektatzea, eta zuzentzeko neurriak hartzea. Tutoreak landutako neurriak nahiko ez balira, eskolako aholkulariarengana joko luke.

AMAIERAKO EBALUAZIOA

Etapamaitzerakoan, ikasleak ebaluatuko dira. Jarraiangoa ebaluazioa izango du abiapuntu eta etapako azken helburuak erreferente.

Etapako azken txosten honetan, helburu orokorretan oinarri duten gaitasunen jabetze maila islatuko dira.

48. artikulua.- LHko ebaluazioaz.

Lehen hezkuntza hastean, HHTik datorren ikasleen informazio osoa irakurriko dute tutoreak.

Ikaslea behar bezala ez bada aurreratzen, indartze neurriak hartuko dira aholkulari eta ikasketa buruarekin batera.

49. artikulua.- Ebaluazio bilerak.

LHn, talde bakoitzak 3 ebaluazio-bilera izango ditu derrigor ikasturtean. (Ikasleen ebaluazioaren agindua oinarrizko hezkuntzan izeneko EHAA- 2008ko uztailak 30eko buletinean)

Ebaluazio-bilera hauetan, honako hauek parte hartuko dute: tutoreak, ikasketa buruak, aholkulariak, eta taldean klase ematen duten irakasle guztiak. Tutoreak alde batetik eta ikasketa buruak bestetik, akta bana hartuko dute, bakoitzak interesatzen zaion informazioarekin (tutoreak gurasoei komentatzeari begira interesgarria dena, IB-k hartu beharreko neurriari begira: antolakuntza, indartze saioak, ordutegietan egin beharreko aldaketak...)

Ebaluazio-bilerek gidoi hau izango dute:

- a. Taldea: ohiturak, portaera, dituzten alde onak eta hobetu beharrekoa...
- b. Ikaslea: .- harremanak, portaera, atentzioa, gustuak, zailtasunak eta abar (besteekiko eta irakasleekiko)
. - arlo bakoitzean ikasleak hartu duen jabetze.

Gurasoei, honako informazio hau emango zaio gutxienez: dauden arloetan ateratako kalifikazioak; ikas-prozesuan eta ebaluazioan egin diren jarduerak nagusiak, eta bakoitzean ikasleak izan duen jabetze-maila; kostatu zaiona eta erraz gainditu duena; zertan hobetu den, eta non behar duen indartu, eta nola gainditu dezakeen indartzeko duena.

50. artikulua.- Ebaluazioaren emaitzez

ANTOLAKUNTZA ETA JARDUERA ARAUDIA
MUKUSULUBA HLHI

Ziklo amaieran, ebaluazio emaitzak idatziko dira 2008ko uztailaren 7ko aginduko gehigarrietan agertzen diren dokumentuetan.

Lehen hezkuntzan, ebaluazioaren emaitzak honako termino hauen bitartez adieraziko dira: GUTXIEGI (GU), NAHIKO (NA), ONGI (O), OSO ONGI (OO) eta BIKAIN (BI).

51. artikulua.- Ikasleen igarotzeaz

Haur hezkuntzan, ikasleak automatikoki pasatuko dira maila batetik bestera. Salbuespenak egon daitezke, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen kasuetan.

Lehen hezkuntzako ziklo bakoitza amaitzean, irakasle-taldeak ikasleen igarotzearen gainean hartuko du erabakia. Erabaki honetan iritzi nagusia tutorea izango da.

Hurrengo ziklora pasatuko da oinarrizko konpetentzien jabe bada ikaslea. Ezezko kasuetan, urte bat gehiago eman dezake ziklo berean. Neurri hau behin baino ezin da hartu Lehen Hezkuntza osoan.

Ez igarotzeko erabakia hartu aurretik, tutoreak ikasleak dituen zailtasunak azalduko dizkie gurasoei, zer-nolako neurriak hartuko diren gainditzen laguntzeko eta entzun egingo die beraien iritzia.

52. artikulua.- Hezkuntza behar bereziko ikasleen ebaluazioaz

Ikasleren bati, bere hezkuntza premia bereziak direla eta, curriculumaren egokitzapena egiten bazaio, honen kopia bat sartuko da bere espedientean.

Egokitzapenak esanguratasun gutxikoak izan daitezke. Honen kasuan, indartze neurria kontsideratuko da, eta espedientean **IN** bezala azalduko da. (Indartze Neurria)

Esanguratsuak izatekotan, Berrikuntza Pedagogikoaren Zuzendaritzak onartuak izan behar dira, eta gainera bere espedientean eta ebaluazio aktetan, ebaluazioarekin batera CNE dela argi azaldu behar da. Hau da, ikasleak ateratako emaitzek erreferentzia egiten diotela bere egokitzapenean jarritako helburuei eta ez ziklo edo mailari.

Hezkuntza Premia Bereziak behar dituen ikaslearen ebaluazioak indibidualizatua, jarraia eta formatiboa izan behar du, betiere hezkuntza administrazioak onarturiko egokitzapenean dauden helburu, eduki eta ebaluazio irizpideen arabera.

Egokitzapenean dauden helburu, eduki eta ebaluatzeko irizpideak, aurreko ziklotakoak izan daitezke, holako kasuetan, igarotzeko irizpideek, egokitzapenean bertan islatu behar dira.

53. artikulua.-Curriculumaren egokitzapenez

Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei, eta erantzun egokiago bat emateko helburuarekin, ikastetxeak honako curriculumaren egokitzapen hauek egin diezazkiekete (denbora mugatuan edo era iraunkorrean):

ANTOLAKUNTZA ETA JARDUERA ARAUDIA
MUKUSULUBA HLHI

- Ez-esanguratsuak
- Esanguratsuak
- Curriculumera sartzekoak

Ikastetxeak egiten dituen egokitzapen guztien kopia gorde behar du.

Egokitzapena duten ikasleen informazioa eta datuak konfidentziasunez kudeatuko dira.

Lehen Hezkuntzan, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleek, arlo guztiak eman behar dituzte.

54.artikulua.- *Ikasle eta beren familiei informazioez*

Ikasleen guraso edo tutoreei informatzearen ardura tutorearena da. Informazioaren ardatz nagusia izango da Ikastetxeko Proiektu Curricularrean idatzita dauden helburuak lortzeko orduan ikasleak izan dituen erraztasun eta zailtasunak.

Ikasturte hasieran, tutoreak bilera bat egingo du gelako ikasleen guraso guztiekin. Bilera horren nondik norakoak, hau izango da:

- Ikastetxeko funtzionamendu arau nagusiak (gelakoak zein eskolakoak)
- Ikasgelako programazioa: helburu nagusiak, ebaluatzeko irizpideak, metodologia, tutoretza, gelako antolamendua...)
- Eskolak indarrean dituen programa nagusiak.: Hizkuntza normalkuntza, A21... (Harreran planean – karpeta laranja – dago bileraren gidoia gordeta)

2 urteko umeen kasuan (eta 2 urteko gelatik pasatu gabeko 3 urtekoak), eskolara heldu baino lehen egingo da bilera eta bertan, gainera, egokitzapen prozesuaren berri emango zaie. Beste bilera guztiak, ahal bada, irailean egingo dira, arratsaldez klaseak hasi baino lehen.

Familiei bileraren gidoia emango zaie idatziz.

HHn bi banakako bi bilera egingo dira familiekin informazioa emateko, batean ahoz eta bestean idatziz (ikasturte amaieran)

LHn hiru txosten bidaliko dira etxera, 3 hiruhilekoetakoak. Taldearen irakaslea aldatzen denean, lehenengo txostena banakako elkarrizketarekin osatuko da.

Familiari emango zaion informazioa, gutxienez, honako ardatz hauen inguruan izan behar du:

- Arlo eta etapako helburu orokorren lorpen maila
- Mailan dituzten arloetan landu diren edukien jabetze maila
- Kalifikazioak eta ikasitakoaren balorazioa
- Beharrezkoa balitz, indarrean jarri izan diren neurri berezien balorapena.

Zikloetako azken txostenen kasuan, gainera, igarotzen den ala ez agertu behar da. Txosten hauek guztiak, irakasle taldeari entzun ostean, tutoreak berak beteko ditu.

55. artikulua.- Ikaslearen lanak, frogak eta ariketen berrikusketaren aukeraz.

Ikasleak (LH3. zikloa) eta beren guraso eta tutoreek, ikaslearen ebaluazioan islatzen diren ariketa, froga eta azterketa guztiak ikusi eta irakaslearekin batera komentatzeko aukera izango dute.

Ikasleek etxera eramango dituzte azterketak edo garrantzia duten ariketak, eta gurasoek ikusi ostean, eskolara ekarriko dituzte.

Zalantzaren bat agertzekotan edo azalpen gehiagoren beharrea egonez gero, tutoreari eskatuko dio hitzordua.

56.artikulua.-Zenbait ariketa eta azterketa jakin batzuen gaineko erreklamazioaz

Ikasleen gurasoek eta LHko 3. zikloko ikasleek tutoreari edo irakasle espezialista bati eskatu ahal izango diote egindako froga edo ariketa baten berrikusketa, (ariketaren emaitza eman eta handik bi eguneko epea du horretarako.)

Guraso edo ikasleen alegazioak irakaslearen aurrean egingo dira eta bertan konpontzen saiatuko da. Beharrezkoa bada, talde horren irakasle-taldearen aholkularitza izan dezake.

Horretarako erreferente nagusia, gai horretarako programaturik dauden ebaluazio irizpideak eta programazio bera izango dira.

57.artikulua.- ebaluazioaren emaitzen erreklamazioaz.

Gurasoek edo beren tutoreek aukera izango dute gelako tutoreari edo espezialista bati, seme-alabari jarritako kalifikazioa erreklamatzeko. Eskaera idatziz edo ahoz egin dezakete. Idatziz eginez gero, idatziz erantzungo zaio eta ahoz eginez gero, aurrez aurre emango zaizkio azalpenak.

Goiko bileratik, gurasoak bere horretan jarraitzen badute, ahoz edo idatziz, eta tutorean bitartez, zikloko irakasle taldearen esku-hartzea eska dezakete. Zikloak aztertuko du jarritako azterketa programazioarekiko duen egokitze maila, hala nola zuzentzeko izan dituen irizpideak. Zikloak, informazioa itzuliko die gurasoei heldu zaien bide beretik.

58. artikulua.- Kalifikazioa justifikatzen duten dokumentuen kontserbazioaz

Irakasleek gorde behar dituzte ikasleen kalifikazioa justifikatzen duten ariketak, azterketak eta bestelako frogak ikasturte osoan, eta, gutxienez, azken ebaluazio ondoko erreklamazio epea amaitu eta hurrengo 3 hilabeteetan.

59.artikulua.- Ziklo amaierako kalifikazioen erreklamazio aukeraz

Ziklo amaieran, hirugarren hiruhilekoan, irakasle tutoreak banan-banan azalduko die gurasoei ebaluazio txostena eta etapakoa, nota globala zein izan den gaineratuz. Gurasoek bertan bere desadostasuna ager dezakete eta jarraian, 48 orduko epea zabalduko da Ikasketa Buruaren aurrean idatziz edo ahoz erreklamazioa aurkezteko. Idazki honetan (edo berbaldi honetan) desadostasunaren oinarriak azalduko dituzte, eta zein den, bere ustez, merezi duten kalifikazioa eta zergatiak.

IB-aren aurrean egingo duten erreklamazio horretan, gurasoek sar ditzakete ikasturtean zehar, edo zikloaren zehar eginiko beste erreklamazio batzuk

ANTOLAKUNTZA ETA JARDUERA ARAUDIA
MUKUSULUBA HLHI

Ikasketa Buruak tutore edo espezialistaren argudioak entzungo ditu eta txosten bat elaboratuko du. Begiratuko ditu egoera berean egon daitezkeen ikasleen aurrean izan den jokabidea, ebaluatzeko jarri dituen frogen egokitasuna, zuzentzeko orduan izan duen jokabidea. Birpasatuko ditu irakasleak gordeta dituen ikaslearen urteko frogak eta, erreklamazio jarri eta handik bi egunetara, erabaki bat hartuko du.

Jarraian gurasoei jakinaraziko zaie erabakia.

Arrazoa gurasoei ematen bazaie, IB-k idazkariari aginduko dio kalifikazioa alda dezan. Arrazoa tutore edo irakasle espezialistari ematen badio, zuzendariaren aurrean aurkez dezake erreklamazio-txosten bat, eta zuzendariak ikuskariari helaraziko dio.

II. TITULUA

XI. KAPITULUA.- IKASLEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

(Erreferentea abenduako 201/2008 dekretua izango da.)

IKASLEEN ESKUBIDEAK

a) Ikasle guztiek eskubide eta betebeharrak berberak izango dituzte. Eskubide eta betebeharren egikaritzea ikaslearen adin eta mailari egokitua izango da.

b) Ikasleak erabiliko ditu bere eskubideak bere betebeharrak alboratu gabe eta bestean eskubideak errespetatuz.

c) MUKUSULUBA eskolako hezkuntza komunitate kide guztiek ikasleen eskubideak errespetatuko dituzte. Besteen eskubideenganako errespetua izango da norberaren eskubideen egikaritzaren muga.

d) Eskolako gobernu organoak eta irakasleak arduratuko dira ikasleen eskubideak eta betebeharrak zaintzeaz.

60. artikulua *Hezkuntza integrala izateko eskubidea.*

(201/2008ko abenduaren 2ko dekretuaren 6. artikulua)

61. artikulua.-*Ikasle adingabeen eskubidea arreta berehala jasotzeko.*

(201/2008ko abenduaren 2ko dekretuaren 7. artikulua)

62. artikulua.- *Ikastetxeak babesteko ikasle adingabeek duten eskubidea.*

(201/2008ko abenduaren 2ko dekretuaren 8. artikulua)

Bermatu ahal izateko, ikasleei debekatuko zaie bideokamerak, patrikako telefonoak eta grabatzeko beste edozein tramankulu erabiltzea.

Ikasturte hasieran baimena eskatuko zaie gurasoei egindako argazkiak web orrian edo aldizkari pedagogikoetan argitaratu ahal izateko.

63. artikulua.- *Errendimendu akademikoaren balioespen objektiboa izateko eskubidea.*

(201/2008ko abenduaren 2ko dekretuaren 9. artikulua)

Dokumentu honen X. Kapitulan, eskubide hau garatuta dago.

64.artikulua.- *Eskola- eta lanbide-orientaziorako eskubidea.*

(201/2008ko abenduaren 2ko dekretuaren 10. artikulua)

Lehen Hezkuntza amaitzean ikasleek hurrengo etapari buruzko informazioa jasoko dute tutorearengandik, biata erreferentzia zentruari buruzkoa ere. Kasturte amaieran DBHko ikastetxeak antolatzen duen bisitan parte hartuko dute.LHko 6. mailako tutoreek, ikasturte amaierako bilera batean, Beurkoko institutuko lehen mailako tutoreei emango diete behar duten informazio guztia.

65. artikulua.- Osotasun, nortasun eta duintasun pertsonaleko eskubidea.

(201/2008ko abenduaren 2ko dekretuaren 11. artikulua)

Edozein tutorek, bere tutoretzapean dauden umeen beharrak, kezak...entzun behar ditu, eta behartuta dago egon daitezkeen liskarrak eta gatazkak konpontzera sortzen diren momentu berean.

Gatazka sortzen denean, ikastaldearen aurrean dagoen irakaslea tutorea ez bada, gertatutakoaz informatuko du.

Tutoreak ahalegin guztiak jarri behar ditu arazoak berarekin batera konpon daitezen. Eskolako zuzendaria eta ikasketa burua konponbiderako azken urratsa izango dira.

66. artikulua.-Kontzientzia-askatasunerako eskubidea.

(201/2008ko abenduaren 2ko dekretuaren 12. artikulua)

Ikasleak bere erlijio sinesmenak eta ideologia errespetatzeko eskubidea du.

67. artikulua.- Ikastetxeetan biltzeko eskubidea.

(201/2008ko abenduaren 2ko dekretuaren 13. artikulua)

LHko 3. zikloko ikasleek eska dezakete biltzeko lekua. Emango zaie baldin eta nagusi bat bertan badago. Tutoreak edo zuzendaritzak leku aproposa eskainiko die.

68. artikulua.- Adierazpen-askatasunerako eskubidea ikastetxeetan.

(201/2008ko abenduaren 2ko dekretuaren 14. artikulua)

Ikasle guztiek dute adierazpen askatasunerako eskubidea, baldin eta AJA honetan dauden arauak errespetatzen baditu. Eskubide hau erabiltzeko momenturik egokiena, tutoretzako ordua da.

69. artikulua.- Ikasleek elkartzeko duten eskubidea.

(201/2008ko abenduaren 2ko dekretuaren 15. artikulua)

70. artikulua.- Parte hartzeko eskubidea.

(201/2008ko abenduaren 2ko dekretuaren 16. artikulua)

Ikasleek parte hartuko dute gelari dagozkion zenbait eremutan. Parte hartzeko foro egokiena, gelako batzarra edo tutoretza da.

Gelako batzarretan taldeko elkarbizitzari buruz, antolatuko diren jarduera berezietz, gelako ohiko martxaz... eztabaidatuko da.

71. artikulua.- Informazioa erabiltzeko eskubidea.

(201/2008ko abenduaren 2ko dekretuaren 17. artikulua)

72. artikulua.- Aukera-berdintasunerako eskubidea.

(201/2008ko abenduaren 2ko dekretuaren 18. artikulua)

73. artikulua.- Gizarte-babeserako eskubidea.

(201/2008ko abenduaren 2ko dekretuaren 19. artikulua)

74. artikulua.- Ikastetxean ikasleen eskubideak errespetatzen direla bermatzea.

(201/2008ko abenduaren 2ko dekretuaren 20. artikulua)

IKASLEEN BETEBEHARRAK

75. artikulua.- Ikasteko betebeharra.

(201/2008ko abenduaren 2ko dekretuaren 21. artikulua)

Ikaslearen betebeharra da bere gaitasun guztiak al bait gehien garatzeko ikastea eta ahalegina egitea. Hain zuzen ere, duintasunez bizitzeko, elkarrekin bizitzeko eta etorkizunean laneratzeko behar diren gaitasunak lortzearren, behar adinako lana egingo du eta behar den interesez; era berean, lan intelektualerako giro egokia sortzen eta giro horri eusten lagundu behar du, eta bere portaerarekin ez du eragozpenik sortuko gelan.

Ikasleak behartuta daude azterketak eta ariketak egiten dituztenean zintzo jokatzera, eta, horretarako, bere ahalegina eta irakasleak maila bakoitzean baimendutako liburuak nahiz materialak besterik ez ditu erabiliko.

76. artikulua.- Prestakuntza-jardueretan parte hartzeko betebeharra.

(201/2008ko abenduaren 2ko dekretuaren 22. artikulua)

Ikasle guztiek hartu behar dute parte prestakuntza-jardueretan, interesez jardunez, agintzen dizkieten lan pertsonalak eginez eta antolatzen diren lan-taldeetan lagunduz.

77. artikulua.- Bertaratzeko betebeharra.

(201/2008ko abenduaren 2ko dekretuaren 23. artikulua)

Ikasleek egunero joan behar dute eskolara, puntualtasunez eta justifikatu gabeko hutsik izan gabe, eta sartzeko nahiz irteteko ordutegiak errespetatu behar dituzte.

Honako hauek hartuko dira justifikatu gabeko bertaratze- eta puntualtasun-hutsegitez: haren gurasoek edo legezko ordezkariak arrazoitzen ez dituztenak. Horretarako, ikastetxean ezarritako arauen arabera onargarria den justifikazioa aurkeztu beharra dago.

78. artikulua.- Bizikidetzaren errazteko betebeharra.

(201/2008ko abenduaren 2ko dekretuaren 24. artikulua)

Ikasleek parte hartu eta laguntza eman behar dute ikastetxean eskola-bizikidetzaren hobetzeko eta ikasteko giro egokia lortzeko, betiere ikaskideen hezkuntzarako eskubidea eta irakasleen agintaritza eta orientazioak errespetatuz.

Horretarako, ikasleek ikastetxeko Antolakuntza eta Jarduera Araudian bildutako Bizikidetzaren

Arauk jakin behar dituzte; irakasle eta hezkuntza-komunitateko kide guztien eskubideak errespetatu behar dituzte, eta portaera egokia izan behar dute haiekin guztiekin, besteek beren eskubideak baliatzeko dituzten eskubideak urratu gabe, sortzen diren gatazkak konpontzeko metodo baketsuak soilik erabiliz, eta betiere ikaskideekiko tolerantziaz eta elkartasunez jokatzuz eta hezkuntza-komunitateko gainerako kideen eskubideak baliatzea erraztuz.

Ikasleek bizikidetzarentzat aurkakoak eta larriki kaltegarriak diren jokabideen neurri zuzentzaileak aplikatzeko lagundu behar dute, zuzendariak edo, hala badagokio, instrukzioaz arduratzen den edozein irakaslek eskatzen dienean lekuko gisa deklaratzuz.

79. artikulua.- Norberaren kontzientzia-askatasuna errespetatzeko betebeharra.
(201/2008ko abenduaren 2ko dekretuaren 25. artikulua)

Ikasleek hezkuntza-komunitateko kide guztien kontzientzia-askatasuna, erlijioaren eta moralaren arloko sinesmenak, eta duintasuna, osotasuna eta intimitatea errespetatu behar dituzte, honako hauek arrazoitzat hartuta inolako diskriminaziorik egin gabe: jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun-egoera, hizkuntza, kultura, erlijioa, sinesmena, ideologia edo beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal, ekonomiko edo sozial.

Ikasleek beren ikaskideen erabakiak errespetatu beharko dituzte, ikaskideek adierazteko, biltzeko edo elkartzeko eskubide indibidualak modu kolektiboan baliatzeko ekintzetan parte hartu nahi ez dutenean.

Ikasleek ez dute hezkuntza-komunitateko kide bakar bat ere iraindu, mehatxatu edo difamatzeko ezein adierazpenik egingo.

Ikasleek, eskola-eremuan, ezin izango dute grabazio-baliabiderik erabili, salbu eta ikastetxeak programatutako jardueretan horrelako baliabideak erabili behar badira

80. artikulua.- Eskolako arauak errespetatzeko betebeharra.
(201/2008ko abenduaren 2ko dekretuaren 26. artikulua)

Ikasleek, ordenamendu juridikoak hezkuntza-komunitateko gainerako kideei aitortzen dizkien eskubideez gain, ikastetxeko antolamenduko, bizikidetzako eta diziplinako arauak ezagutu eta errespetatu behar dituzte, ikastetxearen Antolakuntza eta Jarduera Araudiko xedapenak osorik betez, ikastetxeko Hezkuntza Proiektua errespetatuz, eta, hala badagokio, ikastetxearen ideiak eta izaera errespetatuz, baita horrekin ados ez daudenean ere.

Ikasleek beren eskumenen arloan ikastetxeko gobernu-organoen erabakiak bete behar dituzte, norberaren garbiketari eta norberaren gauzak, jantziak, tresnak edo aparatu elektronikoak erabili eta erakusteari buruzkoak barnean hartuta, eta, era berean, atsedendietan eskola-eremutik kanpo egin daitezkeen irteerei buruzko eta irteeretan erakusten duten portaerari buruzko erabakiak ere bete beharko dituzte. Era berean, ikasleek irakasleen, hezkuntzako laguntzaileen nahiz legezko araudiak esleitu dizkien funtzioak gauzatzen ari diren ikastetxeko irakasle ez direnen jarraibideak bete beharko dituzte.

Ikastetxeak ezartzen dizkien hezkuntza-neurri zuzentzaileen barnean hartutako ekintzak betetzeko betebeharra dute ikasleek.

81.artikulua.- Instalazioak errespetatzeko betebeharra.

(201/2008ko abenduaren 2ko dekretuaren 27. artikulua)

Ikasleek ikastetxeko ekipamenduak eta material didaktikoak zaintzeko eta egoki erabiltzeko betebeharra dute, ikastetxeko, instalazioak, altzariak eta ekipamendu orokorra beren nolakotasunaren arabera eta beren helburuetarako erabiliz, eta, hala badagokio, irakaslearen edo irakasleak ez diren langileen jarraibideen arabera. Ez dute inola ere ikastetxeko ekipamendua baimenik gabe erabiliko ezarritakoak ez diren helburuetarako, ezta dagokion ordutegitik kanpo.

Ikasleek, baimenik gabe, ez diote kanpoko inori ikastetxean sartzeko aukera erraztuko, eta ez dira bidegabe sartu den inorekin ibiliko bertan.

Ikasleek hezkuntza-komunitateko gainerako kideen gauzak errespetatu behar dituzte eta ikastetxearen testuliburuak nahiz gainerako material didaktikoak erabiltzeko baldintza egokietan mantendu behar dituzte

XII. KAPITULUA:

DESEGOKIAK ETA AURKAKOAK DIREN NAHIZ BIZIKIDETZAN KALTE LARRIAK ERAGITEN DITUZTEN JOKABIDEAK ETA HORIEN ZUZENKETA

82. artikulua.- Zuzendu behar diren jokabideak.

Desegokiak, aurkakoak eta bizikidetzarentzat larriki kaltegarriak diren jokabideak baino ezin izango dira zuzendu.

JOKABIDE MOTA DESBERDINAK

83. artikulua.- Jokabide desegokiak.

Hona hemen **jokabide desegoki**en zerrenda:

- Justifikatu gabeko puntualtasun-hutsegiteak, edo atsedenalitik behin eta berriro berandu heltzea.

- Justifikatu gabeko bertaratze-hutsegiteak.

- Ikastetxeko instalazioei, ikastetxeko materialari edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen gauzei narriadurak eragitea, zabarkeriagatik gertatzen denean. (ikasgelak, pasabideak, patioa, musika gela, informatika gela, komunak..) margotzea, apurtzea, zikintzea edo erabilpen desegokia egitea).

- Baimenik gabe, lagun baten materiala erabiltzea, apurtzea, zikintzea, galtzea...

- Irakasleek edo agintari akademikoek agindutakoa ez betetzea, betiere ikasleak haiek

ANTOLAKUNTZA ETA JARDUERA ARAUDIA
MUKUSULUBA HLHI

mespretxatzen eta iraintzen ez baditu edo diziplina nahita hausten ez badu; baita ikastetxeko gainerako langileek beren jardunean emandako aginduei jaramonik ez egitea ere.

- Hezkuntza Komunitateko kideen aurkako adeitasunik gabeko jarrera, keinu edo hitzak.
- Ikastetxeko Gobernu Organoak bere eskumenen eremuan debekatutako ekipoak, materialak, jantziak edo aparatuak ikastetxera eramatea.
Debekatuta dago patrikako telefonoak eramatea, walk-man, nintendo motako makinak, game boy, argazki makinak, bideo grabatzaileak, puntadun objektuak, sua erraz sortzen duten elementuak edo besteen integritate fisikoa arriskutan jar dezaketen edozein elementu.
- Ikastetxeko ekipamendua (elektronikoa, mekanikoa, telefonikoa, informatikoa edo zeinahi motatakoa) baimenik gabe edo baimendutakoak ez diren helburuetarako erabiltzea.
- Ikastetxeko langileei gezurra esatea edo informazio faltsua ematea, betiere horrek hezkuntza-komunitateko inori kalterik eragiten ez badio.
Behin eta berriro egiten badu, kalifikazioak faltsifikatzen baditu, edo agendako oharrak apurtzen edo desegiten baditu larritasun maila handiago emango zaio.
- Kalifikaziorako baliatuko diren azterketa, proba edo ariketetan kopiatzea edo besteei norberarena kopiatzen erraztea, edo azterketa, proba edo ariketa horietan baimenduta ez dauden material edo aparatuak erabiltzea.
- Hartarako baimenik ez dutenei ikastetxean sartzeko aukera erraztea edo haiekin sartzea, ikastetxeko Bizikidetzaren arauen edo Gobernu Organoen jarraibideen aurka.
- Ikaskideen gauzak nahita erabiltzea, haien borondatearen aurka.
- Norberaren betebeharren beste edozein ez-betetze, betiere hezkuntza-komunitateko gainerako kideei beren eskubideak baliatzea galarazten, oztopatzen edo eragozten ez badie, eta jokabide hori ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabide gisa edo bizikidetzaren horri kalte larria eragiten dion jokabide gisa sailkatuta ez badago.

84.artikulua.- Ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabideak.

Hona hemen ikastetxeko **bizikidetzaren aurkako jokabideen** zerrenda:

- Ikastetxeko lagun bakarreko aginte-organoen edo irakasleen aginduak eta ikastetxeko gainerako langileek beren eginkizunen jardunean emandako aginduak ez betetzea, betiere horrekin batera diziplina eza agertzen bada edota irainak, mespretxuak, desafioak edo mehatxuak egiten badira.
- Ikaskideen edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen aurkako mehatxuak edo irainak, betiere jokabide horiek ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabide gisa sailkatuta ez badaude, baita honako hauek ere: hezkuntza-komunitateko gainerako kideen aurkako keinuak edo jarrerak, ez bairik gabe erasotzeko saiakeratzat edo mehatxutzat har daitezkeenak.
- Azterketa-ereduak lapurtzea edo erantzunak kopiatzea, eta horiek guztiak hedatzea, saltzea edo erostea.

ANTOLAKUNTZA ETA JARDUERA ARAUDIA
MUKUSULUBA HLHI

○ Noten buletineta edo gurasoentzako nahiz legezko ordezkarietarako beste edozein dokumentutan edo jakinarazpenetan aldaketak egitea, eta, ikasle adingabeei dagokienez, dagokien hartzaileei ez ematea edo erantzunak aldatzea.

○ Kalteak eragitea bidegabeko erabileragatik ikastetxeko lokalei, altzariei, materialari edo dokumentuei, edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen gauzei, jokabide hori ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidea ez bada.

○ Ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenak hartutako baliozko erabakiak nahita ez betetzea.

○ Besteek ohorerako, intimitaterako eta irudi propiorako duten eskubidea ez errespetatzea, haiek, edo, hala badagokio, haien gurasoek edo legezko ordezkariak, baimena eman gabe grabazio-baliabideak erabiliz.

○ Beste edonori bere eskubidea baliatzeko aukera galaraztea, indarkeria erabili gabe, eta beste edonor bere borondatearen aurka zerbait egitera behartzea, betiere indarkeriarik erabili gabe.

○ Ordena nahasten duten portaerak eskolako jantokian, bai bakarka bai taldean, eta betiere bizikidetzan kalte larria eragiten ez badute.

○ Hezkuntza-komunitateko edozein kiderengan lesio fisikoak eragin ditzaketen objektuak zuhurtziaz gabe erabiltzea.

○ Ikastetxeko langileei gezurra esatea, informazio faltsua ematea edo norberaren nortasuna ezkatzea, horren ondorioz hezkuntza-komunitateko beste kide batzuei kalte egiten bazaie.

○ Diskriminazioa dakarren edozein egintza edo jokabide, diskriminazio horren arrazoia edozein izanik ere: jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun-egoera, kultura, erlijioa, sinesmena, ideologia, edo beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal, ekonomiko edo sozial. Betiere bizikidetzan kalte larria eragiten duen jokabidetzat hartzen ez bada.

○ Aurreko artikuluan adierazitako jokabide desegokiren bat gehienez ere hiru aldiz egitea hiruhileko akademiko berean, betiere aurreko biak zuzendu badira, eta, ikasle adingabeei dagokienez, gurasoei edo legezko ordezkariari jakinarazi bazaizkie.

○ Ikasleen betebeharrak ez betetzea dakarren beste edozein jokabide, betiere hezkuntza-komunitateko gainerako kideei beren eskubideak baliatzeko edo beren betebeharrak betetzeko eragozpenik sortzen ez badie eta jokabide hori hurrengo artikuluan bilduta ez badago, ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideen artean, hain zuzen ere.

85. artikulua.- Ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak.

Hona hemen bizikidetzari **kalte larria** eragiten dioten jokabideen zerrenda:

○ Ikastetxeetako Gobernu Organoekiko edo beren eskumenak betetzen diharduten irakasleekiko diziplinarik gabeko egintza edo obedientzia-ukatze esplizitu guztiak, ezarritako neurri zuzentzaileak betetzeari uko egitea barne, baita hezkuntza-komunitateko kideen aurkako adierazpen

ANTOLAKUNTZA ETA JARDUERA ARAUDIA
MUKUSULUBA HLHI

biziki laidogarri edo iraingarriak ere, laido edo irain horiek edozein modutan adierazita ere: ahoz, idazki bidez, edo baliabide informatikoak edo ikus-entzunezkoak erabiliz.

- Diskriminazioa dakarten edo adierazten duten irainak erabiltzea, diskriminazio horren arrazoa edozein izanik ere: jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun-egoera, hizkuntza, kultura, erlijioa, sinesmena, ideologia, edo beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal, ekonomiko edo sozial.

- Jazarpen sexista: nahi ez duen pertsona batekin eta pertsona horren sexua dela-eta, hitzez, hitzik gabe edo fisikoki edozein jokabide izatea, eta horren helburua edo ondorioa pertsona horren duintasunari erasotzea edo kikilduta, etsai, makurrarazita, irainduta edo laidoztatua sentiarazteko giroa sortzea bada.

- Hezkuntza-komunitateko edozein kideren aurkako eraso fisiko edo psikologikoa.

- Ikastetxeko hezkuntza-komunitateko kideak beren osasunerako eta osotasun pertsonalerako oso kaltegarriak diren jokaerak egitera bultzatzea, hala nola tabakoa, alkohola eta drogak kontsumitzera bultzatzea.

- Bizikidetzaren aurkako jokabide guztiak, taldean egiten direnean edo haien berri nahita zabaltzen denean, ahoz, idazki bidez, ikus-entzunezko baliabideen edo baliabide informatikoen bidez; baita berdinen arteko tratu txarreko egoeretan parte hartzen dutenean ere.

- Liskar edo jokabide erasokorrak eragitea edo jokabide horietan parte hartzea, betiere lesioak eragiteko arrisku larria sortzen bada.

- Nahita kalteak eragitea ikastetxearen instalazioetan edo ondasunetan, ikastetxeko langileei, beste ikasle batzuei edo beste pertsona batzuei, bai bakarka bai taldean.

- Ordena nahasten duten jokabideak eskolako jangelan, betiere hezkuntza-komunitateko edozein kiderentzako egoera arriskutsuak sortzen badituzte.

- Grabazio-baliabideak erabiliz, besteek ohorerako, intimitaterako eta irudi propiorako duten eskubidea ez errespetatzea, aldez aurretik haiek, edo, hala badagokio, haien gurasoek edo legezko ordezkariak, horrelakorik nahi ez dutela esanbidez adierazi badute.

- Ikastetxeko jarduneko egintzetan beste edonoren izena erabilia aritzea.

- Euskarri idatzian edo informatikoan dagoen eskolako dokumenturen bat edo erregistroren bat kaltetzea, trukitzea edo aldatzea, baita dokumentu akademikoak ezkutitzea edo baimenik gabe ateratzea ere.

- Delitua edo zigor-arloko hutsegitea den edozein egintza, nahita egin bada.

- Ikasturte berean gehienez ere hiru aldiz egitea aurreko artikuluan adierazitako bizikidetzaren aurkako edozein jokabide, artikulua horren 11. zenbakian paragrafoan bildutakoa izan ezik, betiere aurreko biak zuzendu badira eta, hala badagokio, gurasoei edo legezko ordezkariari jakinarazi bazaizkie.

○ Norberaren betebeharrak ez betetzea dakarren edozein jokabide, betiere jokabide hori hezkuntza-komunitateko gainerako kideen edo beste edonoren eskubideen aurkakoa bada zuzen-zuzenean; hain zuzen ere, honako eskubide hauen aurkakoa bada: osasunerako, osotasun fisikorako, adierazpen-askatasunerako, parte hartzeko, biltzeko, diskriminaziorik ez jasateko, ohorerako, intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidea.

86. artikulua.- Ikastetxetik kanpo egindako jokabide edo egintzengatiko erantzukizuna.

Aurreko artikuluetan bildutako jokabideak eskolako eremutik edo ordutegitik kanpo egiten direnean ere zuzenduko dira, betiere ikastetxeak programatutako jarduera osagarrien edo eskolaz kanpokoen jardunean egiten badira, jangela erabiltzen den bitartean, edo eskolako jarduerarekin kausa-ondorio harremana dagoela egiaztatzen denean.

XIII KAPITULUA:

HEZKUNTZAKO NEURRI ZUZENTZAILEAK ETA DESEGOKIAK, AURKAKOAK EDOTA BIZIKIDETZARENTZAT LARRIKI KALTEGARRIAK DIREN JOKABIDEEN BESTE ONDORIO BATZUK.

87. artikulua.- Jokabide desegokiaren zuzenketa.

Honako neurri hauetako baten edo gehiagoren bidez zuzenduko dituzte jokabide desegokiak:

- Izandako jokabide desegokiari eta haren ondorioei buruzko hausnarketa.
- Kaltetuak izan diren pertsonen aurrean jokabidea desegokia izan dela onartzea.
- Jokabide-eredu egokiak ikasteko eta barneratzeko jarduerak egitea.
- Jokabide desegokiaren nolakotasunarekin zerikusia duen zereginen bat egitea.
- Zuzendariaren, ikasketa buruaren edota une horretantxe ikastetxearen ardura duen zuzendaritza taldeko kideren baten aurrean agertzeko agindua.

88. artikulua.- Ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabideen zuzenketa.

Bizikidetzaren aurkako jokabideak zuzentzeko, zuzendariak aurreko artikuluan zerrendatutako neurriak edo honako neurri hauetako bat edo gehiago aplikatu ahalko ditu:

- Bizikidetzaren aurkako jokabideari eta haren ondorioei buruzko hausnarketa eta jokabidea bideratzeko orientazioak.
- Ohartarazpen idatzia.
- Ohartarazpena, ikasle adingabeen kasuan, gurasoak edo legezko ordezkariak bertan direla.
- Ikaslea taldez edo gelaz aldatzea, aldi baterako edo behin betiko.
- Lan hezigarriak edo eragindako kalte materialak konpontzeko lagungarriak diren zereginak egitea, edo hala badagokio, ikastetxeko jarduerak hobetzeko eta garatzeko lagungarriak direnak, betiere hiru hilabetez gehienez ere.
- Ikasgai bateko edo bat baino gehiagoko eskoletara nahiz ikastetxera joateko eskubidea etetea, ikasle adingabeen gurasoekin edo legezko ordezkoeekin elkarrizketa izan arte. Neurri horrek ezin izango du hiru egun baino gehiago iraun.
- Eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzeko eskubidea etetea, gehienez ere zuzendutako jokabidea egin den hiruhilekoa amaitu arte; edo, jokabide hori hiruhileko akademikoaren azken

ANTOLAKUNTZA ETA JARDUERA ARAUDIA
MUKUSULUBA HLHI

hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoa amaitu arte.

○ Eskolaz kanpo egin behar diren jarduera osagarrietan parte hartzeko eskubidea etetea, gehienez ere zuzendutako jokabidea egin den hiruhilekoa amaitu arte; edo, jokabide hori hiruhileko akademikoaren azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoa amaitu arte. Nolanahi ere, eskola-ordutegiaren barnean, ikasleari arreta eman beharko zaio ikastetxean.

○ Jangela-zerbitzua erabiltzeko eskubidea etetea, gehienez ere zuzendu beharreko jokabidea egin den hiruhilekoa amaitu arte, edo, jokabide hori hiruhileko akademikoaren azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoa amaitu arte, betiere bizikidetzaren aurkako jokabidea zerbitzu horiek erabiltzen ari zenean egin badu ikasleak.

Hauek dira, MUKUSULUBA HLHI n maizago gertatzen diren jarrera desegokiak, eta era honetan aurre egitea proposatzen da:

JARRERA DESEGOKIAK	NEURRI ZUZENTZAILEAK
<i>Behar ez denean hitz egitea, irakaslearen edo ikasleren baten azalpenak eteten, txantxak, lelokeriak, txistua edo zarata egiten.</i>	- Araua gogoratu eta gero, barkamena eskatu, eta handik aurrera araua bete. -Gertatutakoari buruz hausnartzea, eta hausnarketa paper batean idatzi, gero familia sinatu behar izango duena. -Bere horretan segitzen badu, taldetik kanpo lan egitea, edo taldean segitu baina bere parte hartzea mugatuz edo debekatuz.
<i>Txandak errespetatu (hitz egitean, gelatik ateratzean, zuzentzean...)</i>	- txanda galdu - Azkena izan - Bere horretan segitzen badu, txandarik ez izan.
<i>Materiala ahaztea.</i>	- Gelan egin behar zena, etxean egin. - Gelako materiala ordenatu. - Maiz gertatzen bada, familiari abisatu.
<i>Materiala lagunei kendu, erabiltzea, lekuz aldatu, ezkutatu, zikintzea, apurtzea, botatzea (motxila, koadernoak, liburua, errotulkiak, borragoma...)</i>	Barkamena eskatu. Bere materiala jabeari eman, eta galdu edo apurtu badu, berea eman. Apurturiko materiala ordaintzea. Holako kasuetan, familiari informatzea.
<i>Berdinen arteko errespetu faltak (irainak, keinu desatseginak, hitz bortitzak...lagun bat bultzatzea, lagunak bazterreratzea bulkadan bitartez...)</i>	Barkamena eskatu, eskua eman, besarkada eman. Zerbait atsegina asmatu konpondu ahal izateko. Gertatukoaz hitz egin, nola hasi, nola sentitu den bakoitzak... Kaltetuei aste betean lagundu Bere horretan segitzen badu/dute. Taldetik kanpo jolastera behartu. Taldea-jardueretan parte hartzea debekatzea.
<i>Irakasle, begirale, atezaina, garbitzaileen aurreko errespetu falta, irainak, kainu desatseginak, hitz bortitzak....)</i>	Taldearen aurrean barkamena eskatu. Idatziz hausnarketa bat egin. Zer gertatu den, zergatik, zer lortu den, eta zer-nolako ondorioak ekarri dituen. Familiari informatzea.
<i>Irakaslearen esana ez betetzea, baimenik gabe aulkitik altxatu, klaseen artean, pasabidera atera, edo arbeletan idaztera altxatu.</i>	Gaizki egina, errepikatu, baina behar bezala (baimena eskatuz) Bere horretan segitzen badu, atsedendietan irakaslearekin hausnartu bere jokabidearen ondorioez

ANTOLAKUNTZA ETA JARDUERA ARAUDIA
MUKUSULUBA HLHI

<i>Denbora alferrik galdu, klaseko zein etxeko lanak ez egitea.</i>	<i>Lanak amaitu atsedendietan Familiari informatzea agendaren bitartez konpontzen saiatzea.</i>
---	---

<i>Instalazioak, klaseko material komuna , mahaiak, aulkiak, armairuak, arbelak...apurtzea, margotzea, zikintzea, beharrik gabe gastatzea, paperak lurrera botatzea...</i>	<i>Zikindutakoa garbitzea. Apurtutako material komuna ekarri eta familiari informatu. Botaturikoa jaso eta paperontzian lagatzea. Bere horretan segitzen badu, egunean zehar gelako lurrean dauden paper eta zikinkeria jasoko du. Material komuna gaizki erabiltzen segitzen badu, debekatzea hortik ezer hartzea.</i>
<i>Atsedenditik puntuala ez izatea edo beste edozein jardueratitik (GH, Informatika gelatik...)</i>	<i>-joan-etorrian galtzen duen denbora, atsedenditik kendu.</i>
<i>AJAn debekaturiko objektuak</i>	<i>Irakasleak hartuko dio, eta zuzendaritzara eman. Bere gurasoei abisatu zuzendaritzatik bila pasa daitezen.</i>
<i>Ekipamendu informatikoa, elektronikoa edo telefonikoa baimenik gabe erabiltzea.</i>	<i>- Material hori erabiltzea debekatzea aste batean. - Informatika gelan parte hartzea debekatzea aste batean.</i>
<i>Gezurtatu, edo informazio faltsuak ematea, etxean zein eskolan.</i>	<i>-Tutorearekin hausnartu egindakoaren ondorioez. -Idatziz eman nola sentitzen den.</i>

89. artikulua.- Ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideen zuzenketa.

Ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak zuzentzeko aurreko artikuluan bildutako neurri bat edo gehiago aplikatuko ditu zuzendariak, eta, horiez gain, honako hauetako edozein:

- Lan hezigarriak eskola-ordutegitik kanpo egitea, edo ikastetxeko jarduerak hobetzeko eta garatzeko lagungarriak direnak, edo, hala badagokio, eragindako kalte materialak konpontzeko lanak, betiere sei hilabetez gehienez ere.

- Eskolaz kanpoko jardueretan edo ikastetxetik kanpoko jarduera osagarrietan parte hartzeko eskubidea edo jangela-zerbitzua erabiltzeko eskubidea etetea. Neurri hori ikasturtea amaitu arte aplikatu ahal izango da.

90. artikulua.- Ikastetxez aldatzeko proposamena.

a) Ikastetxe-aldaketa ondoko kasu hauetan proposatu ahal izango da:

- Ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragin dion jokabideak berdinen arteko tratu txarrak edo sexuagatiko jazarpena berarekin badakar.
- Ikastetxeko irakasle bati eraso egitea.

b) Ikaslea ikastetxez aldatzeko proposamena Lurraldeko Hezkuntza Ordezkaritari helaraziko zaio. Azken horrek Hezkuntzako Ikuskaritzari txostena bidali eta irtenbiderik egokiena zein den erabakiko du.

91. artikulua.- Etengabeko ebaluazioa egiteko ezintasuna bertaratze-hutsegiteak behin eta berriz egiteagatik.

Aurreko artikuluen arabera dagozkion neurri zuzentzaileak aplikatzeko aukera bazter utzi gabe, bertaratze-hutsegite ugari egin dituztela-eta etengabeko ebaluaziorako ikastetxeak onartutako metodoak eta irizpideak aplikatu ezin zaizkien ikasleek ez-ohiko probetara aurkeztu beharko dute, ebaluazioa egin diezaieten.

Ikastetxeak ezarriko du proba horien nolakotasuna, betiere dagokion arloa, irakasgaia edo modulua kontuan izanik eta indarrean dagoen araudian xedatutakoari jarraiki.

92. artikulua.- Oinarrizko gaitasun sozial hiritarra ebaluatzearen ondorioak.

Gizarte -eta herritartasun- oinarrizko gaitasuna zer neurritan atxiki den ebaluatzeko irizpideak finkatzeko orduan, irakasle-taldeek edo dagozkion departamentu didaktikoez kontuan hartu ahal izango dute kontrakoak nahiz bizikidetzarentzat larriki kaltegarriak diren jokabideak zuzentzeko neurriek xede dituzten hezkuntzako helburuak bete ez izana.

93. artikulua.- Izan daitezkeen kalteengatiko erantzukizuna.

Dagokionean aplika daitezkeen neurri zuzentzaileak alde batera utzi gabe, ikasleen erantzukizuna da ikastetxeko instalazioetan, altzarietan edo materialean, edo ikaskideen gauzetan eragindako kalteak konpontzea, kalte horiek nahita edo zabarkeria larriki edo ikastetxeak onartutako bizikidetzara-arauei aurkako portaeraren ondorioz egin badituzte. Horren ordean, egin beharreko konponketen kostu ekonomikoa beren gain hartu ahal izango dute, eta beren gurasoak edo legezko ordezkariak izango dira erantzule subsidiarioak legeek aurreikusitakoaren arabera. (patiotik errepidera harririk botatzen badu, eta autoren batean urradurak sortzen baditu)

94. artikulua.- Neurri zuzentzaileak proportzionaltasunez aplikatzen direla bermatzeko irizpideak.

Jokabide deskribatuak zuzentzeko neurriak aplikatzeko, alderdi hauek hartu behar dira kontuan:

- Jokabide deskribatuek zer neurritan eragozten dieten hezkuntza komunitateko gainerako kideei beren eskubideak eta betebeharrak betetzea.
- Hezkuntza komunitateko gainerako kideek bere duintasunean edo autoritatean pairatu duten kaltea, edota jokabide aipatuen ondorioz jasan dezaketena.
- Ikaslearen jokabidearen gain eragina izan dezaketen inguruabarrak nahiz ikasleak bere betebeharrak bete ez dituela ahalbidetzen duten inguruabar pertsonalak eta sozialak.
- Jokabidea osatzen duten gertakariak gauzatzearekin zerikusia duten inguruabarrak.

Jarraian aipatuko ditugun inguruabarrengatik hain murriztaileak ez diren neurri-zuzentzaileak aplika daitezke eta, era berean, erantzukizuna gutxiagotzen dute. Hona hemen:

- Berehala onartzea zuzentzea merezi duen jokabidea desegokia izan dela.
- Aurretiaz neurri zuzentzaileak jaso ez izana.
- Materialari edo ondasun higigarriari edo higiezineari kalteak eragin bazaizkio, kalte horiek eskola-ordutik kanpo konpontzea, edo kalte horiek konpontzeko konpromisoa izenpetzea prozedura erabaki baino lehen.

ANTOLAKUNTZA ETA JARDUERA ARAUDIA
MUKUSULUBA HLHI

- Jendaurrean barkamena eskatzea.
- Hain kalte larria eragiteko asmorik izan ez duela erakustea.
- Eraso fisikoen kasuan, kalte edo lesiorik ez eragitea.

Ondoko inguruabar hauek gertatzen badira, erantzukizuna handituko da eta eskubideak zuzentzeko neurri murriztaileagoak erabiliko dira:

- Jokabidea zuzentzea eragin duten egite edo ez-egiteak honako ezaugarri hauek dituztenen aurka egiten direnean: adinez txikiak, minusbaliatuak, ahalmen fisiko txikiagokoak, ikastetxera etorri berriak; edo nagusikeriaz jokatu izana adierazten duen beste edozein zirkunstantzia.
- Kaltea nahita egina izatea.
- Kaltea apropos egitea edo aldez aurretik prestatu ondoren egitea.
- Jokabidea zuzentzea eragin duten egite edo ez-egiteetarako taldean jardutera bultzatu edo akuilatu izana.
- Eskola-arloko ordezkaritzak-kargua gehiegikeriaz baliatzea jokabidea zuzentzea eragin duten egintzetarako.

XIV: KAPITULUA:

JOKABIDEAK ZUZENTZEKO BIDE ALTERNATIBOAK

95. artikulua .- Xedapen orokorrak.

Ikastetxeetako zuzendariak ahalegina egingo dute bizikidetzaren arazoak konpontzeko, EHAA - 2008ko abenduak 16ko buletinean dagoen IV. kapituluaren araututako prozedurak erabili gabe, eta, ahal dela, kapitulu honetan adierazten diren bide alternatiboak erabilita.

Lehentasunez, zuzendariak ahalegina egingo dute alde hauek adiskidetu daitezkeen: hezkuntza-komunitateko kideren bati eskubideak urratu dizkion ikaslea eta bere eskubideak urratuak ikusi dituen hezkuntza-komunitateko kidea. Horrez gain, eta, posible bada, sortutako kalte materialak edo moralak konpontzen ahaleginduko dira.

Bide horiek erabiliz zuzendu diren jokabideen berri eman behar zaie ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenari eta irakasleen klaustroari (jokabide horiek bizikidetzaren aurkakoak izan behar zuten edo bizikidetzari kalte larria eragiten diotenak).

Bizikidetzaren aurkako jokabideak eta hari kalte larria eragiten diotenak, behin kapitulu honetan adierazitako bide alternatiboak erabilita zuzendu ondoren, soilik ondorio hauetarako jasoko dira ikastetxeetan: ikasleak aurrez hutsegiteren bat egin duen ala ez jakiteko.

96. artikulua.- Prozedurarik gabeko neurri hezitzaileak.

Bizikidetzaren aurkako jokabideak edo hari kalte larriak eragiten dizkietenak gertatzen badira, zuzendariak, inolako prozedurarik martxan jarri aurretik, ahalegina egingo ditu ikasleek jokabide horiek zuzen ditzaten, bere borondatez onartutako neurrien bidez, edo, egoerak hala eskatzen badu, haien gurasoek edo lege-ordezkariek onartutako neurrien bidez. Proposatutako neurriak onartzen badira, ez

da prozedurarik abiatuko, edo, prozeduraren bat abiatuta badago, eten egingo da.

Ezingo da horrela jokatu, salbuespenezko egoera hauetan:

Ikastetxean gutxienez bi aldiz egin bada ahalegina bide horietatik konpontzeko bizikidetzaren aurkako jokabideak edo hari kalte larriak eragiten dizkietenak, eta ez bada erdietsi lortu nahi zen helburu hezitzailea. Zuzendu nahi izan diren jokabideak izaera berekoak izan behar dute.

97. artikulua.-Prozedura bertan behera uztea adiskidetzeari gertatu delako.

Adiskidetzeari gertatzen bada, eten egingo da prozedura. Adiskidetzeari izango da, gertakari hauek ematen badira:

- Ikasleak onartzea hark egin duen jokabidea bizikidetzaren aurkako delakoa edo bizikidetzari kalte larriak eragiten dizkiola, eta, berariaz, urratu egin dituela hezkuntza-komunitateko gainerako kideen eskubideak.
- Barkamena eskatzea edo azalpenak ematea.
- Kaltetua izan den pertsonak, edo, kasuan-kasuan, ikastetxeko organo eskudunak barkamena onartzea.
- Jarduera hezitzailearen bat egitea onartzea.

Adiskidetzeari ez du bertan behera utziko prozedura 85. artikuluan adierazitako jokabideren bat gertatu bada, baina, hala ere, arindu egingo ditu aplikatzekoak diren neurriak.

98. artikulua.- Prozedura bertan behera uztea kalte konpondu delako.

Prozedura bertan behera utziko da baldin eta konpondu egiten badira bizikidetzaren aurkako jokabideen eta hari kalte larriak eragiten dizkieten jokabideen biktimak edo erakunde kaltetuek jasandako kalteak, edo haiek konpontzeko konpromiso fidagarria hartzen bada. Konponketa horrek kalte materialak eta moralak konpondu behar ditu.

Kalteen konponketak edo haien konpontzeko konpromisoa hartzeak ez du etengo prozedura, baldin eta 85. artikuluan adierazitako jokabideren bat gertatu bada, baina, hala ere, arindu egingo ditu aplikatzekoak diren neurriak.

99. artikulua.- Prozedura bertan behera uztea jokabidea familia-eremuan zuzentzeagatik.

Prozedura bertan behera uzteko aukera izango da, baldin eta, zuzendariaren iritziz, jokabidea behar bezala zuzentzen ari bada familia-eremuan. Ezingo da halakorik egin, jokabidea 85. artikuluan adierazitakoren bat baldin bada.

100. artikulua.- Neurri zuzentzaileak eten, arindu edo barkatzea.

Prozedura ebatzi eta kaltetutako pertsonen entzun ondoren, aplikaturiko neurriak baldintzapean etetea erabaki dezake zuzendariak, baita betetze aldia murriztea edo neurriak deuseztatzea ere, ofizioz edo interesdunak nahiz, interesduna adin txikikoa bada, haren lege-ordezkariek eskatuta, betiere ikaslearen jarrera modu positiboan aldatu dela alde zuzentzeagatik egiaztatuz gero.

Zuzendu beharreko jokabidea berriz gertatuz gero, berrerortzetzat hartuko da, zigorra bertan behera geratuta ere.

Jakinarazi egin behar zaie ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenari edo Eskola Kontseiluari eta irakasleen klaustroari neurri zuzentzaileak bertan behera utzi direla arrazoi horiek direla medio.

101. artikulua.– Bizikidetzarako konpromiso hezigarriak.

Kasu guztietan, kaltetuek barkamena onartu ez dutelako adiskidetzetik lortu ez denetan ere, neurri zuzentzaileen aplikazioa eten ahal izango da ikasle interesdunak bizikidetzarako konpromiso hezigarria sinatuta; ikaslea adingabea bada, gurasoek edo legezko ordezkariak ere sinatu beharko dute. Bizikidetzarako konpromiso hezigarrietan, honako hauek bildu beharko dira, behar bezala zehaztuta, baita denboraren aldetik ere.

Bizikidetzari buruzko prestakuntza-jardunak, eta bizikidetzaren aurkako jokabideak aldatzeko eta horien prebentziorako gurasoek edo legezko ordezkariak, hartarako konpromisoa hartuta, gauzatuko dituztenak, eurek edo erakunde, ikastetxe edo pertsona egokien bidez gauzatuko dituztenak, hain zuzen ere. Era berean, ikastetxearekin komunikatzeko eta koordinatzeko mekanismoak bildu beharko dira

Bizikidetzarako konpromiso hezigarriak ez betetzeak etendako neurri zuzentzaileak berehala aplikatzea ekarriko du.

XV. KAPITULUA:

NEURRI ZUZENTZAILEAK APLIKATZEKO PROZEDURAK

I. ATALA:

102. artikulua.– Kontrakoak diren eta bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideak zuzentzeko erabili behar diren prozedurak

Kontrakoak diren eta bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideak zuzentzeko kapitulu honetan arautu diren prozeduretako bat erabili behar da derrigorrez, betiere, XIV. kapituluan jaso diren aukerako bideak aplikatzea posible izan ez denean.

103. artikulua.– Neurri zuzentzaileak aplikatzeko organo eskumenduna.

Ikasgelan, ikastetxeko beste eremuetan edota ikastetxetik kanpo ikasleak haien zainketa zuzenaren pean dauden bitartean, ikastetxeko irakasle guztiek ikasleen jokabide desegokiak berehala zuzentzeko eskumena dute

Irakasle guztiek eskumena dute haien aurrean kontrakoa den edo bizikidetzan kalte larriak eragiten dituen jokabidea gertatzen den unean bertan ikasleari errieta egiteko. Irakasleek, halaber, ikaslea zuzendariarengana, ikasketa buruarengana edo une horretan ikastetxearen arduradun den zuzendaritzako taldeko kideren batengana bidaltzeko eskumena dute, betiere, pertsonak edota objektuek kalteak jasotzea ekiditeko berehala hartu behar diren neurriak bazter utzi gabe.

Zuzendaria da kontrakoak diren edota bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideak

zuzentzeko eskumena duen organoa.

Ordezkaritza Organo Gorena edo Eskola Kontseilua da Dekretu honek ezartzen dituen mugetan zuzendariak hartu dituen erabakiak berrikusteko eskumena duen organoa.

104. artikulua.– Neurri zuzentzaileak aplikatzeko prozeduren epeak.

Kapitulu honetan arautu diren prozedurekin lotura duten egintzak gauzatzeko epe guztiak eskola-egunetan adieraziko dira.

Ondorio horietarako, eskola-egunak hauek izango dira: egun baliiodun guztiak, astelehenetik ostiralera, irailaren batetik ekainaren hogeita hamarrera, oporraldiak izan ezik.

105. artikulua.– Denbora igarotzeagatik prozedurei ekiteko debekua.

Ondoko kasu hauetan, ezin izango zaio inolako prozedurari ekin, ezta desegokiak diren, kontrakoak diren edota bizikidetzan kalte larriak eragin dituzten jokabideen berri edukita ere:

a) Bizikidetzan kalte larriak eragin dituen jokabidea osatzen duten gertakariak edota ez-egiteak gertatu zirenetik ehun eta hogeit egun baino gehiago igaro direnean.

b) Bizikidetzaren kontrakoa den jokabidea osatzen duten gertakariak edota ez-egiteak gertatu zirenetik hirurogei baino gehiago igaro direnean.

c) Jokabide desegokia osatzen duten ekintzak edo ez-egiteak gertatu zirenetik ehun eta hogeit egun baino gehiago igaro direnean.

106. artikulua.– Neurri zuzentzaileak aplikatzeko unea.

Neurri zuzentzaileak aplikatu ahal izango dira:

- Kontrakoak diren edo bizikidetzan kalte larriak eragin dituzten jokabideak zuzentzeko neurriak, erreklamazioak edo helegiteak jartzeko epea amaitzen den unetik aurrera.
- Jokabide desegokiak zuzentzeko zer neurri aplikatuko diren erabakitzen den unetik aurrera.

Ondoko kasu hauetan ezin izango da neurri zuzentzailerik ezarri:

- Bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideen kasuan, neurriak aplikatzeari buruzko behin betiko ebazpena eman zenetik ehun eta hogeit egun baino gehiago igaro badira.
- Bizikidetzaren kontrakoak diren jokabideen kasuan, neurriak aplikatzeari buruzko behin betiko ebazpena eman zenetik hirurogei egun baino gehiago igaro badira.
- Jokabide desegokien kasuan, hogeit egun baino gehiago igaro badira.

107. artikulua.– Ikastetxearen barruan jakinarazpenak nahiz erreklamazioak egiteko modua eta epea.

Dekretu honetan arautu diren prozeduren egintzei buruzko jakinarazpenak jakitera eman behar den egintza gertatu eta hurrengo eskola-eguna amaitu aurretik egin beharko dira.

Kapitulu honetan arautu diren prozeduretan jaso diren erreklamazioak jartzeko epea hiru egunekoa izango da.

Dekretu honetan arautu diren prozeduren barruan jaso diren eta hezkuntza-komunitateko kideei helarazi behar zaizkien jakinarazpenak nahiz zitazioak jasotzaileak mezua jaso duela argi jakiteko moduan igorri behar dira.

108. artikulua.– Dekretu honetan arautu diren prozeduretako datu pertsonalak lantzeko, babesteko eta ezeztatzeko bidea.

Jokabide zuzenduei buruzko datuak dagokion ohiko edota ohiz kanpoko prozeduraren agirietan soilik ageriko dira. Datu horiek ez dira ikastetxeko fitxategi edota erregistro iraunkorrera transferituko eta, maiatzaren 3ko 2/2006 Hezkuntzaren Lege Organikoaren hogeita hirugarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat zaindu eta aldi baterako beste ikastetxe batera eraman ahal izango dira.

Edonola ere, Dekretu honek arautzen dituen prozeduretan sortu diren agiriak suntsitu behar dira. Horrela, bizikidetzaren kontrakoak diren jokabideei buruzko prozeduren agiriak prozedura gertatu zeneko ikasturte akademikoa amaitzean suntsitu behar dira. Eta, bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideei buruzko prozeduren agiriak prozedura gertatu eta hurrengo ikasturte akademikoa amaitzean suntsitu behar dira.

Prozeduraren izapide guztietan prozeduran parte hartzen duten pertsona guztien ohorearen, duintasunaren, intimitatearen eta irudi propioaren eskubideak babestu beharko dira, ikasle adingabeen kasuan batez ere.

109. artikulua.– Erreklamazioak eta helegiteak.

Zuzendariak emandako ebazpenaren aurka, ikasleak edo, haren lekuan, haren gurasoek edo legezko ordezkariak, erreklamazioa aurkeztu ahalko dute Ordezkaritza Organo Gorenean.

Ordezkaritza Organo Gorenaren erabakiaren aurka, ikasleak erreklamazioa aurkeztu ahalko dio dagokion Hezkuntzako Lurralde ordezkariari hiru egun balioduneko epean, erabakiaren jakinarazpena jasotzen denetik zenbatzen hasita.

Erreklamazio ezestearen aurka interesdunak gora jotzeko errekurtsua jar diezaioke Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Hezkuntza sailburuordeari, jakinarazpena egin eta hilabeteko epean.

II. ATALA

JOKABIDE DESEGOKIEN ZUZENKETA

110. artikulua.– Jokabide desegokiak zuzentzeko ahozko prozedura.

Jokabide desegokiak berehala eta ahoz zuzenduko dira.

Nolanahi ere, jokabide desegokia zein izan den eta aplikatu izan diren neurri zuzentzaileak idatziz jaso ez badira eta, ikasle adingabeen kasuan, ikasleen gurasoak edota legezko ordezkariak jakinarean gainean jarri ez badira, ezin izango da 93. artikuluan idatzita dagoena.

Kasu guztietan, jokabide desegokiei eta jokabide desegokiak zuzentzeari buruz idatziz edota euskarri informatikoetan jaso diren agiriak ikasturte akademikoa amaitzean suntsituko dira.

III. ATALA

BIZIKIDETZAREN AURKAKO JOKABIDEAK ETA BIZIKIDETZAN KALTE LARRIAK ERAGITEN DITUZTEN JOKABIDEAK ZUZENTZEKO OHIKO PROZEDURA

111. artikulua.– Ohiko prozeduraren erabilera.

Ohiko prozedura erabili ahalko da zuzendu beharreko jokabidea osatzen duten gertakariak nahiz gertakari horien egilea nor izan den bistakoa denean.

Prozedura horri ofizioz ekingo zaio eta idazki bidez egingo da. Prozedurak, gutxienez, honako zati hauek izango ditu: hasierako egintza; ikasleak eta, hala badagokio, ikaslearen gurasoek edo legezko ordezkariak, esateko zer duten entzutea; eta prozeduraren amaiera ekarriko duen erabakia.

112. artikulua.– Hasierako egintzaren gutxieneko edukia.

Hasierako egintzak honako hauek ekarri behar ditu:

- Ikasleari leporatzen zaion jokabidearen azalpena.
- Kontrakoak diren edo ikastetxeko bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideetako batean kokatzea.
- Ikasleari leporatzen zaion jokabidearen izaera kontuan harturik aplika daitezkeen neurriak.
- Dagokion neurria aplikatuko den erabakitzeke eskumena duen organoa zein den, eta organoari horretarako ahalmena esleitzen dion araua.

Era berean, baketzematiko edo konpontzematiko eteteak jasoko dira.

113. artikulua.– Hasierako jakinarazpena eta alde zurretiko entzunaldirako zitazioa.

Hasierako egintza, kasu guztietan, jokabide leporatuaren erantzule den ikasleari jakinaraziko zaio, baita, ikasle adingabea den kasuetan, haren gurasoei edota legezko ordezkariari ere.

Hasierako jakinarazpenarekin bat, ikaslearen alde zurretiko entzunaldirako zitazioa bidaliko da, baita, hala badagokio, haren gurasoen edota legezko ordezkarien entzunaldirako zitazioa ere. Mintzagai dugun zitazioan, halaber, entzunaldiaren eguna eta ordua zehaztuko dira.

114. artikulua.– Behin-behineko neurriak.

Bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideen kasuan, bere iritziz beharrezkoa denean eta bizikidetzari eragindako kaltearen larritasunaren arabera, zuzendariak behin-behineko zenbait neurri ezarri ahal izango ditu ikastetxean jarduerak normaltasunez gauzatuko direla bermatzeko. Neurri horien artean ondoko bi hauek leudeke: batetik, ikasleak eskoletara joateko duen eskubidea aldi baterako etetea, ikasleari eskola zehatz batzuetara edo eskola guztietara joatea debekatuz; bestetik, ikaslea behin-behinekoz taldez aldatzea.

Behin-behineko neurriak prozedura amaitu arte bere horretan mantendu ahal izango dira. Behin-behineko neurriak, bidenabar, ezin izango dira aplikatu beharreko neurri zuzentzaileak baino latzagoak izan. Nolanahi ere, ikaslea ikastetxera edo eskoletara bertaratzeko eskubideaz gabetuta egon den denbora oso-osorik zenbatuko da, aplikatutako neurri zuzentzailea betetzeko garaian.

Ikasle interesdunei eta, ikasle interesdunak adinez txikiak badira, haien guraso edo legezko ordezkariari jakinaraziko zaie behin-behineko neurri ezarriak zein diren.

115. artikulua.– Entzunaldiaren izapidea.

Entzunaldiaren izapidearen bidez, entzuna izateko eta bere burua defendatzeko ikasleak duen eskubidea bermatu ahal izango da. Horrenbestez, hasierako egintzaren edukiaren gain nahiz ikastetxeak bere erabakiaren oinarri gisa hartuko duen informazio osoaren gain ikasleak egoki deritzon alegazioak egiteko aukera izango du.

Ikaslearen entzunaldia egitea derrigorrezkoa izango da kasu guztietan, ikaslearen adina dena delakoa izanik eta hartu beharreko neurria hartuta ere. Adinez txikiak diren ikasleek entzunaldian beren gurasoek edo legezko ordezkariak laguntzeko eskubidea dute. Azken horiek, nahi izanez gero, beren alegazioak egin ahal izango dituzte, betiere, ikasleak bereak egin ondoren.

Ondoko kasu hauetan, ikasle adingabeen gurasoei edo legezko ordezkariari entzunaldia egin beharko zaie derrigor:

- Ikasle adingabe horiei leporatzen zaien jokabidea ikastetxeko bizikidetzan kalte larriak eragin dituen.
- Bizikidetzaren kontrako neurriak direnean, betiere, aplikatu litezkeen neurri jakinarazien artean EHAA - 2008ko abenduak 16, asteartean argitaraturiko araudiko 35. artikuluko 1.g), 1.h) eta 1.i) ataletan zehaztutakoren bat badago.

Entzunaldiaren izapidea hasierako egintza jakinarazi eta hurrengo eskola-egunean egin beharko da, betiere, gurasoen edo legezko ordezkarien entzunaldia egitea derrigorrezkoa ez bada. Hala ez bada, entzunaldia, gehienez ere, hiru eguneko epean egin beharko da. Interesdunak entzunaldira agertzen ez badira ere, prozedurak bere martxari eutsiko dio.

Aurkeztu diren alegazioak idatziz jaso behar dira.

116. artikulua.– Aplikatu beharreko neurri zuzentzailea erabakitzea.

Hartutako erabakia idazki batean bilduko du zuzendariak, arrazoiak azalduta. Era berean, dagozkion gertakizunak eta zuzentzeko oinarriak bilduko ditu, baita erreklamaziorik edo errekurtsorik ebatzi behar izanez gero hartarako eskumena duen organoak kontuan izan beharreko alderdi guztiak bildu ere. Gutxienez, honako hauek agertuko dira:

ANTOLAKUNTZA ETA JARDUERA ARAUDIA
MUKUSULUBA HLHI

- Oro har, ikasleei edo, ikasle adingabeen kasuan, haien legezko ordezkariari ikastetxeko bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideak edo bizikidetzaren kontrako jokabideak zein diren jakinarazi zaien modua.
- Bizikidetzaren aurkako jokabidea edo bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidea osatzen duten gertakizunen deskribapena.
- Gaitzesten zaion portaera ikasleari argi eta garbi jakinarazi zaiola ziurtatzea, zuzendu nahi den jokabidearen tipifikazioan portaera hori jasota dagoela azalduz.
- Ikasleak bere jokabidea onartzeko, ukatzeko, zehazteko edo azaltzeko egin dituen alegazioak edo adierazpenak, eta, hala badagokio, gurasoek edo legezko ordezkariak egin dituztenak, baita egon daitezkeen lekukoaren deklarazioak ere.
- Zuzendariaren iritziz ikaslearen jokabidearekiko zirkunstantzia astungarririk, aringarririk, edo ikaslea errugabetzeko zirkunstantziarik ba ote dagoen ala ez.
- Ezarriko diren neurri zuzentzaileak. Neurri horiek hasierako egintzaren jakinarazpenean aukerakotzat jo direnak izango dira, ez besterik.
- Neurriak zer unetatik aurrera aplikatu behar diren. Neurriak inoiz ez dira aplikatuko Ordezkaritza Organo Gorenaren aurrean erreklamazioak egiteko epea amaitu aurretik.
- Ordezkaritza Organo Gorenaren aurrean aipatu erreklamazioa aurkezteko epea.

Zuzendariak bere erabakia hartu beharko du entzunaldia egin eta hurrengo eskola-eguna amaitu aurretik. Zuzendariaren erabakia, hortaz, ikasleari eta, ikaslea adinez txiki bada, haren gurasoei edo legezko ordezkariari jakinaraziko zaie.

Zuzendariak hartutako erabakia helarazi beharko dio Ordezkaritza Organo Gorenari eta ikastetxeko Irakasle klustroari, horren berri izan dezaten.

117. artikulua.– Dagokion Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzari, eta, hala badagokio, dagokion Gizarte Zerbitzuei jakinaraztea.

Neurria bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidea zuzentzeko ezartzen den guztietan, idazki horren kopia bat helaraziko zaio dagokion Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritari. Honako kasu honetan ere helaraziko zaio idazkiaren kopia: bizikidetzaren aurkako jokabidea zuzentzeko ezartzen bada, neurri zuzentzaileak ikastetxera bertaratzeko edo garraio- eta jangela-zerbitzuak erabiltzeko eskubidea aldi baterako kentzea badakar.

Kasu horietan, neurria bete behar duten ikasleak Foru Aldundietako edo Udaletako Gizarte Zerbitzuen laguntza duten familietakoak badira, aplikatu zaien neurria Zerbitzu horiei helarazi beharko zaie, haren berri izan eta jarraipena egiteko aukera izan dezaten.

Artikulu honetan xedaturikoa betetzearen ondorioz egiten diren jakinarazpen guztiak konfidentzialtasun-eskubidearen eta erreserba-betebeharraren babespean daude.

118. artikulua.– Ordezkaritza Organo Gorenaren edo Eskola Kontseiluaren aurrean erreklamazioa jartzea.

Ikasleak edo, hala badagokio, haren gurasoek edo legezko ordezkariak eskatuz gero, Ordezkaritza Organo Gorenak edo Eskola Kontseiluak zuzendariak hartutako erabakia berrikusi ahalko du, eta, hala badagokio, dagokion neurriak proposatuko ditu.

119. artikulua.– Ordezkaritza Organo Gorenaren erabakia.

ANTOLAKUNTZA ETA JARDUERA ARAUDIA
MUKUSULUBA HLHI

Batetik, zein neurri aplikatu behar den erabakitzeko idazki arrazoitua eta, bestetik, ikaslearen edota, ikaslea adinez txiki bada, haren gurasoen edo legezko ordezkarien erreklamazioan jasotako alegazioak kontuan hartuta, Ordezkaritza Organo Gorenak neurri hori berretsiko du, betiere Dekretuak aurreikusitakoaren arabera dela irizten badiu, bestela, erabakia berriz aztertzea erabakiko du.

Ordezkaritza Organo Gorenak bere eskumenak eskuordetu ahalko dizkio ikastetxeak Antolakuntza eta Jarduera Araudian edo Barne Araudian ezarrita dituen ordezkari batzordeei edo horretarako eratutako Batzorde bati, betiere Ordezkaritza Organo Gorenako kideek erabakia gehiago osoz onartzen badute. Nolanahi ere, Dekretu honen aplikazioarekin lotutako funtzioak betetzeko, Ordezkaritza Organo Gorenako legez ezarritako gurasoen, ikasleen eta irakasleen proportzioak errespetatu beharko dira, eta horretarako boto haztatu sistema ezarri ahalko da

Ordezkaritzako Organo Gorenak gehienez ere hiru eguneko epean hartu beharko du bere erabakia.

120. artikulua.– Jakinarazpena.

Ordezkaritza Organo Gorenaren erabakiaren ikaslearentzako edo, hala badagokio, haren gurasoentzako edo legezko ordezkariarentzako jakinarazpenak erabakiaren eduki osoa adierazi beharko du. Jakinarazpenean erabakiaren arrazoiak adieraziko dira, zuzendariaren aurreko erabakia berresten nahiz berrikusten den aintzat hartu gabe, eta, era berean, Hezkuntzako Lurralde ordezkariari erreklamazioa aurkezteko epea adieraziko da.

Ordezkaritza Organo Gorenaren hitzarmena Lurraldeko Ordezkariari eta dagozkion Gizarte Zerbitzuei jakinaraziko zaie, betiere, 117. artikuluan jasotako kasuetan.